




uk

33. zenbakia / 2002 urria



XX GETXOKO ANTZERKI JARDUNALDIAK

TEATRO GETXO ANTZERKIA

XX JORNADAS DE TEATRO DE GETXO
URRIA 17-27 OCTUBRE

informazioa: 94 491 40 80 kulturetxea@getxo.net

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Getxo moda, Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Batasuna legez kanpo.
7. LEHEN ETA ORAIN. Trinitarios elizako kanpandorretik.
8. HERRIZ HERRI. Getxo 8. Leioa 12. Erandio 16. Berango 20.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Iraganeko arrastoak. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Fermin Muguruza. Jokin Aspuru.
32. ERREPORTAJEA. Uribe Kostako korredorea. Unai Brea.
36. BIZIMODUAK. Eskola. Unai Brea.

KULTURA

40. FOTOGRAFIA. Andrés Lejonanaren argazkiak.
44. ZINEMA. Euskal zinemaren historia eta Marilyn Monroe.
46. MUSIKA. Bonzos musika taldea eta datozen kontzertuak.
49. IRAKURGAIAK. Erreseinak eta Esti Ezkerraren zutabea.
50. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
52. BIDAIAK. Perito Moreno glaziarra Gonzalo Iribarnegarayren eskutik.

EUSKARAZ

54. URIBERTSOAN BARRENA. Iraxe Ibarri elkarriketa. Zerbezaren azokan bertsotan eta Josu Arroyoren bertsoak. Hau guztia, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik.
58. AKABUKO PUNTE. Kontxi Unanuegaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
60. EUSKARA. Berriak, elkarriketa...

AMAITZEKO

62. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Aitor Elizegi, puntako sukaldaria elkarriketatu dugu. Non jan? Adibidez, Zabala ereteginn. Eta pintxoak? Barukoa tabeman.
67. FLASH BACK. Ereagako hondartza txapelketak, 1951. Bittor Egurrola.
68. HOROSKOPOA.
69. KOMIKIA. Gorka Vázquez.
70. AITORMENAK. Josu Urrutia.



26 Fermin Muguruza

Berbetan

Disko bat plazaratu berri du. Aitzakia hori hartuta Iruneraino joan ginen. Aspaldian ezagutu nahi genuen.



36 Eskolara



40 Andrés Lejonanaren argazkiak



32 Uribe Kostako korredorea



58 Kontxi Unanue



64 Aitor Elizegi



70 Josu Urrutia



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Arnezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Javi Gonzalez del Herrero, Unai Brea

FOTOGRAFIA BURUA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron

AHOLKULARI GRAFIKOA: Guillermo Almagia

MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez

KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Urtzi Iglesias, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Gonzalo Irbarregaray, Berbots eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Edorta Cachorro (94 491 13 37)

HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF



LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Itxasgane Exxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>GETXOKO UDALA</p>
<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>	

	<p>Leioako Udala</p>		<p>Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
<p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>			

	<p>Erandioko Udala</p>		<p>Aldizkari honek Erandion Berbots Euskaraz elkarrean laguntza jasotzen du</p>
<p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>			

	<p>Bizkaiko Foru Aldundia</p>
<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>	

Behar-beharrezkoa

ditugu zuen

dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Ale honetan

Konturatu barik udagoienean sartu gara bete-betean. Uda memoria da eta orain apur bat ilunagoa den egunerokotasunari aurre egin behar. Ikasturte berria eta ikasleak atzera eskolara eta baita irakasleak ere. Ez dira uste izaten den bezain ondo bizi, badituzte euren arazoak. Euren bizipenak ezagutu nahi izan ditugu eta eskualdeko seirekin egon gara. Bestalde, **Fermin Muguruzak** disko berria plazaratu du eta aitzakia hori hartuta Irunera joan ginen, bera han bizi baita. Arratsalde pasa egin genuen beragaz. Elkarrizketan irakurri ahal izango duzuen moduan Karibeko musikarekin maiteminduta dago Fermin eta gauza bera gertatu zitzaion ale honetan gonbidatu dugun **Andrés Lejona** argazkilaritari. Han, Karibbean, bizi izandako esperientziak iruditan islatu eta guri utzi dizkigu. Lan ederra. Ameriketatik ere ibilia da gure kolaboratzaile berria den Gonzalo Irbarregaray. Baina eskualde hotzagoan, hain zuzen ere, **Patagonian** eta hango glaziarretan. Eta ematen du erraz mugitzen dela jendea leku batetik bestera baina gure eskualden ez da hain erraza izaten batzuetan, izan ere trafiko arazo larriak ditugu. Horregatik denon ahotan dabilen **Uribe Kostako korredoareari** buruzko erreportaje sakona osatzea eskatu diogu Unai Breari, erredakzioko gure kide berriari. Ez dakigu (beno, orain bai) **Sopelana ala Sopela** esan behar zaion bizi den herriari. Zalantza hau argitzeko Euskaltzaindiako onomastika saileko arduraduna den **Mikel Gorratxategi** adituaren gai honi buruzko iritzia ekarri dugu orrialdeotara; oso argigarria. Eta jende gehiagorekin ere egon gara, esaterako, **Josu Urrutia** futbol jokariarekin, **Aitor Elizegi** sukaldari handiarekin, **Kontxi Unanue** berangoztar petorekin... Eta gainera gure ohizko atalak osatzeko astia ere eduki dugu.

Tira hauxe da guztia oraingoz, eutsi goiari eta goza UK-rekin!

UK-ko lantaldea

besteek esanak

“Telebista oso hezitzailea iruditzen zait: inork hura piztu orduko, beste gela batera joaten naiz irakurtzera”

Groucho Marx (Aktorea)

“Euskaldun militante batek, ingelesa hartu beharko luke bigarren hizkuntza legez”

Mikel Morris (Hiztegigilea)

“Ez dakit zelakoa izango den munduko hirugarren gerra, badakit ordea, laugarrena harriak eta lantzekin egingo dela”

Albert Einstein (Zientzialaria)

“Barre egin ez dugun eguna baino egun galduarik ez dago”

Charles Chaplin (Aktorea)


“Agintarien poltsikoek kristalezkoak izan behar dute”

Enrique Tierno Galván (Politikaria)

“Ez dago bakerako biderik, bakea da bidea”

Mahatma Gandhi

[irudia]



Getxo Moda / Aurtengoa herriko merkatariek antolatzen duten *Getxo moda* erakustaldiaren hamazortzigarren edizioa izan da. Modak eta modeloek erakarrita jende asko hurbildu zen Areetan jarri zuten karpara. / Argazkia: **Asier Mentxaka**

[plaza]

Iritzia

Aldizkari honen ibilbide luzean ez dugu sekula maiuskulaz idazten den politika horrekin zuzenean loturiko testurik argitaratu. Beti pentsatu izan dugu nahikoa espazioa betetzen duela ohizko komunikabideetan eta gainera, gu bestelako proposamen komunikatiboa egiten saiatzen gara. Hala ere, Batsuna legez kanpo utzi izana kontu oso larria eta kezagarria iruditu zaigu. Iritzi bi eskatu ditugu.

Oriente plazako izpirutua

Alderdi Politikoen Legeak eta Alderdi Popularrak (Alderdi Sozialistaren laguntzaz) gure aurka egiten ari den erasoak argi erakusten dute Espainiako estatuko demokrazia zein hauskorra den.

Askok uste izan zuten diktadorea eta haren oinordeko politiko-militarra hilez gero erregimen frankista amaitu egingo zela. Espainiar trantsizio baketsua, askok esaten zuten bezala, historiarako eredu da. Traumarik gabe, odolirik gabe, bortxakeriarik gabe. Espainiaren historiaren sasoi beltz hori ezkatuzeko adibide bikaina. Are, inboluziorako joerei eta estatu kolpeei aurre egin zitzaizen. Estamentu militarrek ere, iraganeko egiturekin, botere zibilaren mende jartzea onartzen omen zuten. Zein oker zeuden!

Demokrazia ez da proba baten ostean ematen dizuten titulu bat, eta ez du frogatzen behin betiko demokrata zarenik. Demokrazia egunetik egunera irabazi behar da. Alderdi Sozialistak oker handia egin zuen, ETA arma berberak erabiliz garaitzen saiatu zenean. Alderdi Popularrak ondo ikasi du akats horretatik, eta estrategia leunagoa du. Mayor Oreja eta Aznarrentzat,

terrorismoaren aurka borrokatu behar da; euskal nazionalismoa suntsitu egin behar da. Horretarako armarik ezin bada erabili, sistema demokratikoak dituen tresnak erabil ditzagun. Egoki ditzagun espainiar legeak helburu horiek erdiesteko, aukera ditzagun botere judizialaren buruak. Erabil dezagun gobernu honen botere absolutista euskal herritarren egitura ekonomiko, sozial eta instituzionalak desegiteko edo, gutxienez, ahultzeko. Horixe da espainiar eskuin nazionalistaren estrategia.

Alderdi Politikoen Legea pentsamolde horren adibide argia dugu. Batsuna legez kanpo uztea erabiltzen dute lege horren aitzakia, baina beraren helburua euskal nazionalismoa da. Tristeena eta ulergaitzena da Alderdi Sozialistak, tradizio demokrata luzea izanik, Orienteko Plazako izpirutukoak zirenen estrategian parte hartzea. 4

Jon Zabalia (EAJko Bizkaiko Buru Batzarreko kidea)

Lapur ez diezadaten itxaropena

Ez dut eztabaida sakona sortarazi nahi. Ezta ere azterketa politikorik egin. Batsuna ilegalizatzeko ematen ari diren urratsak eta prozesu hori guztia bultzatzen ari diren indar politikoak salatzea, besterik ez da nire asmoa.

Demokraziatzat jo izan duten sistema politiko honetan eskasia nabarmenak izan dira 25 urte hauetan. Izan ere, ez naiz estatu terrorismo edo autodeterminazio eskubidearen ukapenari buruz soilik ari. Sakralizatu duten Konstituzio potolo horrek bere lehenengo tituluan babesten “omen” dituen oinarrizko eskubideak ere urratu dituzte sasidemokrata horiek: Adierazpen askatasunaren eskubidea behin eta berriro urratu dute botere publikoek eta ez soilik Ezker Abertzalea komunikabide publikoetatik baztertua izan delako, Ezker Abertzalearen abotsa ixilaraziz Informazioa jasotzeko edozein hiritarrek duen eskubidea urratzen delako baizik. Hala ere, demokrazioaren mozorroa jantzia eraman du espainiar estatuak nazioarteko komunitatearen aurrean.

Gaur egun, berriz, Batsunaren ilegalizazioaz oinarrizko eskubideen urrapenak begibistakoak dira. Azken hilabete hauetan euskal

gizartearen eskubide zibilak ezabatzen ari dira. Eta ondo diot euskal gizartearen eskubide zibilak, ez Ezker Abertzalearenak.

Ezker Abertzalea erakunde politikoa “desagertarazi” egin dute. Ezker Abertzaleari ogasun ekonomikoa lapurtu diote, Euskal Herriko 75 Kultur Elkarteri etxea ebatsi diete, Ezker Abertzaleak hauteskundeetan lortutako ordezkaritza politikoa baztertu dute... Baina Euskal gizarteari adierazpen askatasunaren eskubidea, ideologia askatasunaren eskubidea, informazioa jasotzeko eskubidea, askatasunez elkartzeko eskubidea, protesta egiteko eskubidea ere, horiek guztiak ostu dizkigute.

Eta honetaz guztiaz gain errealitatea ere lapurtu digute: Takolo, Pirritx eta Porrotx ETA komandorik arrisksuenetariko bat omen da.

Badaezpada ere nire sakelean, berna ongi berotzen duen lekuan itxaropena gorde dut. Une latz hauetan nire altxorrik preziatuena neurekin eramatea erabaki dut, lapur ez diezadaten itxaropena. 4

Mikel Urriz (Batasuna)

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / TRINITARIOS ELIZAKO KANPANDORRETIK

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Gure izenak


Burututa dago Getxoko **toponimoen bilketa**. Udalak eskatuta, filologo bik egin dute, eta **1.200 izen** baino gehiago topatu dituzte. Lan horretan jardun dutenetako batekin berba egin du UK-k

la urte eta erdi eman dute Amagoia Aurrekoetxea berangoztarrak eta Sofía Suso gasteiztarrak Getxoko toponimoak biltzen. Biak dira euskal filologian lizentziatuak (derrigorrezko baldintza zen), eta biei ere Getxoko udalaren beka bati esker egokitu zitzaizen berriki amaitu duten zeregin handi hori. Hain zuzen, Aurrekoetxea izan da lanaren nondik-norako berri eman diguna.

1259 izen bildu dituzte. Horra egindako ikertze lan mardularen emaitza. Amagoia Aurrekoetxeak esan digunez, iturri mota bi erabili dituzte bilketa egiteko: bata, lan handiena eman diena, artxiboak arakatzea; bestea, lekukoei elkarrizketak egitea. Bost lekukorekin soilik berba egin dute, ordea; izen gehienak XVII. mendetik honako artxiboetan topatu dituzte, *“1609tik hasita”*.

Hain zuzen, Bizkaiko Aldundiko Foru-artxiboa, Getxoko Udal Artxiboa, Jabetzaren Erregistroko artxiboa eta Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala izan dituzte lanabes. *“Dena erdaraz zegoen”*, dio berangoztarrak, *“eta askotan igarri egiten da notario asko kantopotik etorriak eta, beraz, erdaldunak zirela”*.

Antza, hizkuntza ez jakiteak batetik, eta zehaztasun ezak bestetik, ikertzailearen lana zailtzen du, leku beraren izena modu desberdinetan idatzita ager baitaiteke. Hala ere, filologo bien eginkizuna bilketa hutsa izan da, izendegiaren normaltzea Euskaltzaindiaren esku geratu baita, eta, zehazkiago, Onomastika Saileko Mikel Gorrotxategirenean. Hura izango da toki bakoitzaren



Argazkian, Getxoko Andra Mari eliza

izen egokia erabakiko duena, Susok eta Aurrekoetxeak egindako lana oinarri hartuta.

Aurrerantzerako, Udalak hainbat asmo ditu lan honekiko. Bildutako materialari liburu itxura emateko asmoa dago, baina oraindik ez dago guztiz erabakita liburu hori nolako izango den, ez eta informazioa bestelako euskarritan argitaratuko den ala ez.

«Euskaltzaindiak hartu du bere gain izendegiaren normalizazioa»

Etxe, erreka, mendi zein kaleen izenak bildu dira. Arazorik handienak etxe eta kaleak eman dituzte, denboran zehar gehien aldatzen direnak direlako. Gainera, asko gaur egun ez dira, desagertu dira eta batzuetan, aipamen bakarra egoten da mendeetan zehar. Badira une batetik bestera izena aldatzen duten tokiak ere, edo 30 urtean hiru izen des-

Notarioen kontuak

Antzinako kontuak ordukoek idatzi zituzten gauzetan oinarrituz ezagutzeko beste modurik ez dago. Jakina da, bestalde, garai batean jende gutxi zekiela idazten, eta are gutxiagok egiten zutela maiztasunez. Horien artean, askotan erdaldun ziren notarioak. Artxiboetan arakatzean, erdalduntasun horrek toponimian zelango eragina eduki duen konturatu gaitzke. “Anbekokalle” izena adibide ederra da. Amagoia Aurrekoetxearen ustez, notarioak euskaldun zahar bati inoren etxeaz itaunduta, harek erantzundako moduan zehatz-mehatz jasota dago izen hori.

berdin izan dituztenak. Inoiz, jendeak darabilen izena eta Euskaltzaindiak gomendatzen duena ez dira bat etortzen. Andra Mari eta Elexalde, adibidez. Izenak aukeran. m

Getxo futbol taldea

hiru mende laurdenak ospatzen ari da



Jokalari ohiak eta bazkideak Portu Zaharrean afaltzen

Aurton 75 urte bete ditu Getxo futbol taldeak, eta hori dela-eta hainbat ekintza egiten dabilta. Argazkian ikusten duzuen jokalaririk ohi eta bazkide afaria da, Garagardoaren Azokan errugbi taldearekin batera egin zutena. 60ren bat lagun elkartu ziren. Hala ere, Rafa Uriarte 75. urturenako ospakizunaren arduradunak adierazi digunez, deialdia ez zen behar bezala egin, eta horregatik afaria ez zen uste bezain arrakastatsua suertatu. Beraz, aurten bertan errepikatzeko asmoa dute.

Horrez gain, Getxo eta Athleticceko veteranoen arteko partida jokatu zen uda-

berrian, eta taldearen egoitza berri bat eta web orria ere aurkeztu dituzte. Hemendik urte amaiera arte, hainbat ekinza gehiago dago aurreikusita, Uriartek esan digunez.

Urriaren 29an, Algortako erakustaretoan, taldearen historiari buruzko erakusketa inauguratuko da. Trofeoak, argazkiak, agiri zaharrak... hamaika gauza izango da ikusteko. Bestalde, Athleticen aurkako partida ere prestatzen ari dira; data zehaztu gabe dago oraindik. Azkenik, Getxoren historia kontatzen duen liburua aurkeztuko da; dagoeneko idatzita dago, eta urte amaiera baino lehen kalean egotea espero dute. m

IKASTAROAK GETXO ENPRESA ETA MERKATARITZA-REN ESKUTIK

Datozen hiletarako 17 ikastaro antolatuta ditu Getxo Enpresa eta Merkataritza elkarteak. Ikastarook hiru multzotan banatuta egongo dira. Batetik, informatikarekin harramana daukatenak izango dira; bestetik, elikagaien erabilpenari buruzkoak eta, hirugarrenik, enpresa-kudeaketari lotutakoak. Gura duen edonork parte har dezake ikastaroetan, baina elkarteeko bazkide direnentzat merkeagoak izango direla adierazi dute antolatzaileek. Elkartearen egoitzan emango dira (Arene kaleko 22. zenbakian, Algortan). Orduetegiak merkatarien beharrezan moldatu dituzte, parte hartzea errazteko asmoz. Informazio gehiago nahi izanez gero, 94 430 55 00 telefonora deituta lor daiteke.

ALGORTA ETA EREAGA LOTUKO DITUEN IGONGAILUA EGITEKO LEHENENGO PAUSOAK

Algorta eta Ereaga hondartzaren artean igongailua egiteko lehenengo pausoak eman dituzte udal agintariek. Izan ere, udaletxean egindako azken Gobernu Batzordean beharrok diseinatutako eta zuzentzeko proiektua onartu dute, 70.000 eurotan. Lau hilabeteko epea ezarri dute zati hori amaitzeko. 2003ko urtarrilerako proiektua onartu nahi da eta azkenik, lan hau gauzatuko duen enpresa aukeratzeko lehiaketa publikoa martxan jarriko da.

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Epea zabalik

Urriaren 11ra arte eska daitezke **hartzaindegiko bekak**

Getxoko Udalak irailean zabaldu zuen hartzaindegirako bekak eskatzeko epea. Hain zuzen, urriaren 11ra arte luzatuko da epe hori. Eskaera Udaletxean bertan, Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan edo hiritarren arretarako Erromo eta Andra Mariko bulegoetan egin daitezke.

Bekak 0 eta 2 urte bitarteko umei emango zaizkie eta, besteak beste, honako baldintzak bete beharko dira eskuratzeko: gutxienez urtebete egon izana Getxon errolatuta, eta aurrez ezarritako soldata baino handiagozik ez jasotzea.

Iaz 45 beka eman ziren guztira; aurretik, berriz, aurrekontua handitu egin da, urtetik urtera eskaria gero eta handiagoa dela ikusita. Hain zuzen, iaz baino 84.000 euro (14 milioi pezeta) gehiago izango da. ^m

Bb Cc Dd Ee Ff Gg Hh Ii



Otsailean zabaldu zuten denda Unai Cabello (argazkian) eta Javier Musatadik

Unai Cabello > Algortako Sinsemilla grow shop dendaren jabea

“Grow shop-ak gero eta onarperpen handiagoa dute”

Grow Shop-ak, izenak dioenez, haziak saltzen dituzten dendak dira. Kalamu haziak, hain zuzen ere. Espainiar estatuan dagoen legedi bitxiari esker, mota honetako dendak legezkoak dira, marihuana legez kanpo egon arren. Holandan dute jatorria, eta azken boladan arrakasta handia edukitzen ari dira Euskal Herrian. Uribe Kostan bi daude; horietako bat Algortan.

Unai Cabello Villamonte plazan dagoen Sinsemilla grow shop-eko ugazabetako bat da. Dioskunez, “hemen, kalamu haziak ez ezik, marihuanarekin harremana duten gauza ugari saltzen ditugu... marihuana bera izan ezik”. Ongarriak, intsektizidak, hazitegiak... landarea behar bezala hazteko aproposak izan daitezkeen gauzak, oro har.

Hamaika produktu

Bada gehiago. Droga horren kontsumoarekin harremana duten tresnak, apaingarriak, liburuak, aldizkariak, marihuanaren eratorriak (xaboia, perfumeak, kosmetikoak...), pipak, kalamuzko jantziak eta poltsak... Kalamuaren mundua oparoa izan daitezke,


zinez. Eta, nolabait, marihuanaren estetika bat sortu da.

Marihuana ez da legezkoa, baina beste droga batzuk bai (oraindik bai, esan genezake), eta horiek saldu egiten dira Sinsemilla-n: efedra, guarana, *salvia di vinorum*, peiotea... “Droga hauek marihuana bezain psikotropikoak dira, baina guztiz legalak”, esan digu Unai Cabello. Berak eta bere bazkide Javier Musatadik joan den otsailean ireki zuten denda eta, Cabelloren esanetan, jendeak oso harrera ona egin dio. “Grow shop-ak gero eta onartuagoak daude, gazteen artean batik batik. Gurea bezalako dendei esker, marihuana zaleek eurek landatutako kanabisa erre dezakete, kalean saltzen den zarama erostera behartuta egon barik”.

Giroa alde dute. Gaur egun, pil-pilean dago marihuana legezkatzeari buruzko eztabaida, erabilera terapeutikoari dagokionez behintzat. Gero eta ahots gehiago agertzen dira gizarte mailan onarpen handia daukan eta ia batere toxikoa ez den droga hau legearen barruan jartzearen alde. Denborak esango du. ^m

Getxoko XX. Antzerki Jardunaldiak

21 emanaldi izango dira aurten




Urriaren 17an hasiko dira, Kultur Etxeak antolatuta, Getxoko XX. Antzerki Jardunaldiak. Aurtengo edizioan, 17 talde izango dira; “Gutxi gora behera aurreko urteetako kopuruari eutsi diogu”, azaldu digu Iñaki Saituak, antolatzaileetako batek. Saituak adierazi duenez, pozik daude jardunaldiok

izan ohi duten harrerarekin, bai jende kopuruaren aldetik, eta baita aurkezten diren antzezlanak atseginez jasotzen dituztelako ere. Ohi bezala, Kultur Etxekoak aniztasuna bilatzen ahalegindu dira, “*hizkuntza, tokia zein antzerki motari dagokionez*”, dio Iñaki Saituak. ^m

EUSKARAZKO ANTZEZLANAK

- Urriak 17: **Biblia osoa gutxi gora behera**. Getxo Antzokia, 19:30.
- Urriak 19: **Meliton eta lagunak**. Algortako geltokiko plaza, 13:00.
Clin Clan Clown. Areetako Andres Isasi Musikan Eskola, 18:00.
- Urriak 20: **Zintzoaren ametsa**. Algortako geltokiko plaza, 13:00.
Abere kantariak. Areetako Andres Isasi Musika Eskola, 18:00.
Sutargi. Getxo Antzokia, 20:00.
- Urriak 25: **Murphy gainetik kendu ezinda**. Getxo Antzokia, 19:30.
- Urriak 26: **Trufaldinoren pastelak**. Algortako geltokiko plaza, 13:00.
Ahatetxo itsusia. Areetako Andres Isasi Musika Eskola, 18:00.



Argazkiak Satistegi tabernan

Kulturaren aldeko apostua egin dute Satistegi tabernakoek. Astero, Algortako beste taberna batzuetan bezala, antzerki emanaldiak antolatzen dituzte. Hori ez ezik Satistegin hilabeteko fotografia erakusketak ere antolatzen dituzte. Duela gutxi arte Oskar Martinez argazkilariak Kuban hartutako irudiak ikusi ahal izan dira. Orain Joseba Igartuaren “Ur eta zur” testurak gozatu daitezke.

AGENDA

Kontularien kluba

Denboraldiaren hasiera, **urriaren 11n**, Algortako Kultur Etxeko Areto Nagusian, 19:00etan. Ipuin kontalaria entzun edo izan nahi dutenei zuzendua.

Zine kluba

2002-03 denboraldiaren hasiera: “El otro lado de la cama”, **urriaren 30ean**, 21:00etan, Getxo Antzokian, eta **urriaren 31n**, 20:00etan, Areetako Gran Cineman.



XXII. aste korala

Urriaren 28an, Audite taldea (Finlandia).

Urriaren 29an, Puellae Chamber Choir (Hungaria).

Urriaren 30an, The Boulevard Harmonists (Hegoafrika).

Urriaren 31n, Biotz-alai. *Emanaldi guztiak Getxo Antzokian izango dira, 19:00etan.*

Erakusketak

3tik 17ra, Erromoko erakustaretoan, “Herriaren Koloreak” argazki erakusketa.

15etik 26ra, Natividad López de Letonaren margolanak Algortako erakustaretoan.

19etik 31ra, Hurbil-en erakusketa: Haurrentzako Antzerkia. Erromoko aretoan.

Beira putzegileak oroitzuz

Joan den irailaren 6an, **eskultura** baten inaugurazioaz, Leioako udalak eta Lamiakoko Vicrila enpresak **omenaldia** egin zioten aspaldi desagertutako **lanbide** gogorrari

Gaur egun puntako teknologia nagusi da industrian, baina ez dira hainbeste urte orain makinek egiten dituzten beharrak langileen trebetasun hutsari esker aurrera ateratzen zirela. Adibide eder bat beira putzegileena da. Gure eskualdean, Lamiakoko Vicrila enpresan izan zuten berebiziko garrantzia. Batez ere atzerrikoak izaten ziren langile haiek.

Vicrila enpresa 1892an sortu zen, Ibaizabalen kanalizazioak zenbait urte lehenago Lamiakon sortutako eremu lehor berrian. Zonaldeko lehen lantegia izan zen hain zuzen; garai hartan, Vidrios de Lamiako zuen izena. Gerora izen desberdinak izan ditu, eta baita hainbat ugazaba ere. 1972tik, Vicrila (Vidriera y Cristalera Lamiako) du izena, eta 80ko hamarkadatik frantses konpainia baten esku dago. Batez ere edalontziak egiten ditu.

XIX. mendearan amaieran eta XX.aren hasieran, ordea, lantegiko produkturik garrantzitsuena beira lau zen, leihoak egiteko erabiltzen zena alegia. Mekanizazioak ez zegoen apenas, eta zenbait langilek garrantzi handia zuten; baina, azpimarratzekotan, putzegileak aipatu behar ditugu.

Putzegileek gori-gori zegoen beirari putz egin behar zioten. Hain lanbide gogorra zenez, eguneko bost ordu besterik ez zuten lan egiten, ohiko lanaldia hamabi ordukoa zen garaian. Gainera, gazte erretiratu behar zuten, 50 urterekin-edo. Hori bai, lantegiko zuzendariak baino gehiago kobratzen zuten.



Goian, omenaldia jaso duten jubilatutako batzuk; behean, ipini duten estatua

Lamiakon lan egin zuten putzegile gehienak atzerriarrak ziren. Belgikarrak batik bat, baina baita frantziarrak eta italiarrak ere. Denboraldi bakoitzerako etorten ziren, emazte eta guzti (zortzi hilabete inguru), eta haiek bizitzeko tokia izan zezaten egin zituen Vicrilak lantegi barruko lehen etxeak. 1920ko hamarkadan, baina, lanbidea desagertzen hasi zen.

«Putzegileen lanaldia bost ordukoa zen soilik, arrunta hamabi zirenean»

Irudietan ikus dezakezuen, irailaren 6an Leioako udalak eta Vicrilak omenaldia egin zioten putzegilearen figurari, Lamiakon eskultura ipiniz eta enpresako hainbat jubilatutari ere opariak eman zizkieten. m



Luzaroan egon dira erabili barik eraikinok

Ospital zaharra bota egingo dute eta enpresa-parkea eraikiko bide dute bertan


60ko hamarkadan hasi zen eraikitzen Gurutzetakoaren bikia izan behar zuen ospitala Leioa eta Erandioko lurretan. Azkenik, proiektua ez zen burutu, baina eraikina bertan geratu zen. Orain, bota egingo dute.

150.000 metro koadro hartzen du ospital zaharrak, gehienak Leioakoak. Lurzoru horren jabea den enpresak hitzarmena sinatu du Leioa eta Erandioko udale-

kin, udalerrri bi horien plangintzetan eraisketa aurreikus dadin. Honezkeroko egitasmoa abian da, eta udalen eta Aldundiaren arteko akordioa besterik ez da falta. Leioako alkateak lanak aurtengo abenduan hasteko itxaropena agertu badu ere, udaletxeko iturriek ziurrenik datorren urteko udara arte ez direla hasiko adierazi diote UKri. Enpresa-parkea eraikitzea da asmoa, iturri beraren arabera. m

TRIVIALEAN JOKATUZ, LEIOA EZAGUTU

Euskarri informatikoan plazaratu da Leioari buruzko galderak dituen Trivial jokoa. Guztira, 2.000 ale banatuko dira, eta gura duenak hiru eurotan erosi ahal izango du kiosko eta liburutundetan. Horrez gain, hainbat kultur etxe, elkarte, enpresa eta lekutan banandu da. CDA Leioako ikastxeetara zabaltzeko asmoa ere badago, hezkuntzarako tresna gisa erabili ahal izateko. Jokoaaren ereduak ohiko Trivial Quest da, sei gairen gaineko galdez osatutakoa: geografia, historia, artea eta literatura, kultura, kirolak eta bitxikeriak. Guztira 700 itaun izango ditu, beti ere Leioari buruzkoak. Helburua, noski, jokatzeko bitartean Leioako biztanleek beren herria hobeto ezagutzeko aukera edukitzea da.



SATISTEGI

C A F E



ADITUAK GARA

PINTXO ETA
BOKATA
BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

KURKUDI
LIBURU DENDA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

URTEURRENEKO OSPAKIZUNA

Urriaren 31n Leioa Erandiotik banatu eta herri bihurtu zenekoa ospatuko dute. 476. urteurrena, hain zuzen. Gertakizun hura gogoratzeko, hainbat ekimen izango da. Besteak beste, Leioari buruzko galderak dituen Trivial Quest maratoia egingo da (zenbaki honetan bertan ematen dugu horren berri zehatzagoa); lehiaketa berezi hori Artatza Jauregian izango da. Tamalez, edizio hau ixteko unean ez dago gainerako ekitaldien gaineko informaziorik. 1526. urtean, Erandioko Andra Mariko Juan Alonso Mujika jauntxoaren eta Leioako biztanleen arteko gatazka bat zela medio, Donibane Bataiatzailearen omenezko eliza aurrerantzean Erandiokoa ez zela izango ebatzi zen; hala sortu zen Leioako udala. Aipatu gatazkaren zergatiak hamarrenekin zerikusia zeukan. Jakin badakigu oso luzea izan zela; baina ez zaigu hari buruzko berririk ailegatu.

BI MILA LAGUNEK ERABILI DUTE KZGUNEA

lazko irailean abiatu zenetik, 1942 lagunek erabili dute Leioako KZgunea. Horien artean, andrazkoak nagusi ditugu; hain zuzen, gunetik igaro direnen ia %60. Adinari dagokionez, 25 eta 34 urte bitartekoak izan dira zerbitzua gehien erabili dutenak (%24,56). KZgunera gutxien hurbildu direnak, berriz, 65 urtetik gorakoak izan dira: adin tarte horretako 41 lagunek baino ez dute erabili. Lan-egoerari begiratzen badiogu, ikasle eta langileak erabiltzaile ohikoak izan dira; beste muturrean etxekoandreak eta jubilatuak daude. Leioako KZgunea izan zen EAEn irekitako lehenengoa. Teknologia berriak eta Internet eskuragarriago bihurtzeko helburua dauka, eta informatika ikastaroak ere eskaintzen ditu. Igaro den urtean, 899 lagunek hartu dute horietakoren bat.



Euskara Zerbitzuak dioenez, umeek ingurune akademikoaren soilik lotzen dute euskara

Olgetan be euskaraz

Leioako Euskara Zerbitzuak eskolatik kanpo euskaraz **egitea** bultzatu gura du

Leioako Euskara Zerbitzuak Olgetan ekimena jarri du abian, herriko umeengan euskararen erabilera sustatzeko helburuz. Urritik ekainera bitartean, eta astelehenetik barikura, egunero ordubeteko jarduerak izango dira euskaraz egitea bultzatzeko. Bestalde, asteburuetan txangoak antolatuko dituzte; horietara, ekimenean parte hartzen dutenak zein haiek gonbidatzen dituzten lagun euskaldunak joan ahal izango dira.

Euskara Zerbitzuak igorritako prentsa oharrean adierazten denez, Leioako ume gehienak B eta D ereduetan ikasten dabilzan arren, *“Leioa gune erdaldumean kokatuta dagoenez, ikasle gehienek eskolan baino ez*

dute euskara ikasten”. Oharrak dioenez, umeek euskararekin daukaten harremana uste baino murriztagoa da eta, bestalde, ingurune akademikoan baino ez da egiten. Egindako kalkuluen arabera, D ereduko umeak euren denboraren %14a baino ez dute ematen euskararekin harremanetan, hau da, oso denbora gutxi.

Olgetan egitasmoaren asmoa, hain zuzen ere, hutsune hori betetzea da. *“Askotan, haurrei zaila egiten zaie euskara aisialdiarekin lotzea”*, dio oharrak. Horregatik, helburua umeen euskarazko trebetasuna areagotzea da, eskolaz kanpoko giroan euskaraz egiteko aukera ematen den bitartean. m

Foto zaharra > San Bartolome eliza



Goian, lehen eta ia azken harria ipini zutenekoa; behean, egin ez zen elizaren maketa (Argazkiak, Leioa atzo eta gaur taldea)



Egin ez zen eliza

1960ko egun bat. San Bartolome auzoan egun handia. Eliza moderno baten lehen harria ezartzeko goiko irudian ikus dezakezen ekitaldi xume bezain jendetsua egin zen. Argazki-lariak hiru elizgizon harrapatu zituen eginkizun sakratuan. Bata Leioako apaiza da, bestea San Bartolomekoa. Hirugarrena, berriz, ez dugu identifi-

katerik izan. Ikusleen artean, lehenbiziko planoan, frankismoaren estereotipoari ezin hobeto egokitzen zaizkien elementuak ez dira falta. Atzerago gertatu da herri xehea, ezkerreko argazkiko eliza zuri txukunera joan behar ei zena. Baina, dakigunez, lehenengo harria azkenetakoa ere izan zen. Baselizarekin konformatu behar. m

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
AREETA ALGORTA
T. : 94 464 89 94 T. : 94 491 13 94

Tlf. 94.6760328

LAIKAK Taberna

Bentatxu, 2
48600 - Sopela

Inportaziozko
zerbezaril
onenak

Terraza
zabala

basartena

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

Goiherri sokatira taldea

Gorabehera handiekin taldeak **25 urte** betetzen ditu aurten. Kide gehienak **erandioztarrak** izan badira ere bada laukizarren bat ere. Jose Luis Orozko **"Txelis"**ekin egon gara, taldeko **entrenatzailea**

"Goiherri" taldea 1977an sortu zen eta sarritan gertatzen denez postura baten fruitua omen da. **"Auzoko zaharrek ez ginela gai esaten zuten eta gazteok baietz erantzun. Horrela prestatu genuen gure lehenengo tirada"** esan zigun Txelisek. Lehenengo hori Erromoko jaietan izan zen. **"Dena den, betidanik egon da Erandion sokatiran egiteko gogoia eta taldearen inguruan gazte asko bildu ziren momentuan"** gaineratu zuen.

Txelisen ustez taldeak kirol garaipenak lortzeko baino, auzokoen arteko harremanak sendotzeko balioa du. **"Entrenamenduetan haserre eta hitz gogorrak ere sortzen dira, baina guretzat taldea lagun giroko gunea da, auzolana eta jaietarako motorra"**.

Taldearen garaipen garrantzitsuenak 80ko hamarkadan izan ziren. 1982an Bizkaiko txapelketa irabazi eta hortik 1990 arte Euskadiko Txapelketa irabazi zuten gomazko tiralekuan eta pisu guztietan 560, 600, eta 640 kilotan. 1988ko Suediako Munduko Txapelketan bigarrenak izan ziren, han ere goma gainean.

Egun maila baxuagoa du taldeak. Izan ere, edozein kiroletan goiko mailan aritzeko lana eta sufrimendu handia behar dira eta Txelisek zionez **"Goiherri taldekoak zaleak besterik ez gara"**. Taldeak ozta-ozta dirau bizirik. 13-14 lagun elkartzen dira egunero ikasketa edo lantegiko orduak bete eta gero. **"Jendeak aisia behar du eta ez da batere erraza lanekin amaitu eta entrenatzera etortzea"** esan zigun. Gazteenek taldea utzi dute eta garai batean indartsu ibili zen nesken taldea ere desagertu da.



Goian taldeko lagunak entrenatzen. Behean, Jose Luis Orozko, Txelis.

Taldea Hego Afrikako Munduko Txapelketarako bidaia prestatzen zegoen Txelisekin bildu ginenean eta ilusio handiak zeramatzan sakelean. 560ko txapelketan lehenengo lauen artean ez egotea desilusia izango zela aitortu zigun.

"Sokatira taldea lagun giroko gunea da Goiherri"

Euskal Selektioari buruz ere mintzatu ginen. Gaur egun nazioen arteko lehiaketetan Euskal Selektio modura parte hartzeko oztopo handiak daude. **"Klubean artekoan ez dugu arazorik eta naziokoetan parte hartu nahi badugu klubak baino arduradun politikoak inplikatu beharko dira, goitik presio handiagoa egin beharko lukete hori lortzeko"** azpimarratu zuen Txelisek.

Taldeak dituen arazoei buruz galdetu



genionean Txelisek ez zekien oso ondo nondik hasi. Lehentasunak ezartzerakoan unetxo bat pentsakor geratu eta zalantzak argitu ondoren entrenatzeko lekuaren beharra azpimarratu zuen. **"Kanpoan gabiltza entrenatzen, neguan euria, lokatza, leia. Horrela ezin da entrenatu. Gomazko tiralekua ere beharko genuke. Entrenatzeko leku egokia izanez gero jende gehiago ibiliko ginen taldean"** gaineratu zuen amaitzeko. m



Erandioztarrek ohorezko aureskua eskaini zieten Coriako agintariei euren herrian

Coria Extremadurako herria eta Erandio senidetze bidean

Sasoi baten Extremadura aldeko etorkin ugari jaso zuen Euskadik eta Coriatik etorritako asko bildu ziren Astrabuduan. Egunotan, Coria eta Erandioren arteko senidetze ekimenak bideratu dituzte.

Joan den irailaren lehenengo astean, Erandioko ordezkari bat Cacereseko Coria herrian izan zen, FECOR 2002 azokan, eta gure herriaren gorabeherak ezagutu nahi zuen jende ugari hurbildu zen bertara. Udaletxeko hainbat ordezkari joan zen industria, merkataritza, turismoa eta kulturari dagokionez gure herriaren ikuspegi zabal eskaintzeko asmoz: EAJ/PNV-EAko zinegotzi diren Juan Vicente Baeza eta Mikel Valdes; Batasunako Felipe Fernández eta Ainhoa Esnal; PSE-EEko Maite Pérez eta Ezker Batuko Emilio Frutos.

Ekitaldi nagusiak irailaren 7an izan ziren eta erandioztarrek ohorezko aureskua eskaini zieten hango agintariei. Gazta eta txakolina dastatu ondoren, Erandioko Elizatearen eta Coriako herriaren arteko senidetze ekitaldia egin zuten. Ekitaldi hori Erandioko Udaltza Osoak berretsi du, talde politiko guztien adostasunez.

Urriko bigarren astean Coriako udal ordezkari batzuk Erandiora etorri dira senidetzea sinatzeko eta, aurrerantzean, interes amankomunak dituzten arloetan harremanak jorratzeko asmotan dira.

Esan behar dugu gaur egun Erandion eta bereziki Astrabuduko auzoan bizi den jende asko jatorriz Coriako eta inguruko herritxoetakoa dela eta hortik abiatu dela senidetzeko ekimena. m

ETXEBIZITZAK ETA BIZTANLERIA: BATERA DOAZEN ERREALITATEAK?

Industrializazio prozesuaren ondorioz hazkunde handia izan zuen Erandio 60ko hamarkadan, eta etorkin ugari jaso zuen. Duela 18 bat urte hazkundeak goia jo zuen eta ordutik hona biztanle kopurua, apurka-apurka, gutxituz joan da: 1986an 25.000 biztanle gora zituen herria eta gaur egun 23.000 inguruan dabil, baina behetik. Azken bizpahiru urteotan badirudi Erandio eutsi egiten diola biztanle kopuruari, baina biztaliaren piramideak beherako joera markatzen du: gure herrian biztanleen %20 60 urtetik gorakoa da eta %17 baino ez da 20 urtetik beherakoa. Bertako jendea inguruko herrietara joan izana eta jaiotza-tasa txikia aipa ditzakegu arazoi modura, eta azpimarratu behar da hainbat urtez gure herrian eraikuntza arloa geldirik egon dela. Azken urteotan, ordea, hamaikaxo etxebizitza eraiki dute eta beste hainbat egitekotan dira. Herrian bertan geratzeko aukera izan dezakete gazteek, baina hori bai, etxebizitza ordaintzeko dirutza lortuz gero, zeren ez dira makalak prezioak! Eta etxebizitza sozialik ez da gurean. Etxebizitzen gorakadak ekarriko al du biztanleriaren hazkunderik?




Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net

BEHIN BATEAN
LIBURUDENDA
Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxa: 94 430 74 03

uk
94 491 1337

Alzaga abesbatza

Emakumez osatutako abesbatza hau Erandioko Emakume Elkartearen ekimenez sortu zen, eta **Gerardo Franco Aranaga** dute **zuzendari** hasiera-hasieratik. Orain bosgarren **urteurrena** ospatuko dute

Bost urteko ibilbidea badela zerbait eta ospakizunak prestatzen dabiltzala hurbildu gara abesbatzaren entsaio batera. Gerardo kontu-kontari aritu zaigu taldearen gorabeherak azaltzen, eta egindako lanaz harro dagoela nabari zaio.

Behin Emakume Elkarteak antolatutako ekitaldi batean parte hartu zuen Gerardok Argia otxoteko kide izanik, eta ekitaldi osteko tertulian hasi ziren emakumeen abesbatza osatzeko aukeraz hitz egiten. Esan eta egin. Gaur egun 42 kide dira. Gazteenak 24 urte ditu, baina gehienak edadetuagoak direla eta gazte jendea behar dutela diote.

Astean birritan elkartzen dira entsaioak egiteko, eta horrez gain solfeo ikastaroren bat ere egin dute. Baina bereziki aipatzen dute iazko ikasturtean, eta Emakume Elkarteak berak antolatuta, 22 kidek egin zuten kantu tekniken ikastaroa, ikastaroari esker kalitatea nabarmen hobetu baitute. Gerardok esan digunaren arabera *“Oso ondo ari da taldea orain, errepertorio zabala daukagu eta kantu batzuetan zirrara berezia sortzen dute”*.

Emanaldiak

Hogeit bat ekitaldi egingo dituzte urtean zehar; iaz baino gutxiago, garrantzitsuagoak izan arren. Ezkontzetara ere joaten dira kantatzera eta hortik ateratzen dute gastuetarako dirua. Apirilean Katalunian izan ziren, eta orain kataluniarrak etorri dira urteurreneko ospakizun nagusian parte hartzeko: Puicerdako abesbatzarekin bate-




Goian, taldeko kide batzuk entsaioan. Behean, Gerardo Franco Aranaga zuzendaria.

ra kantatu dute urriaren 7an San Agustin elizan. Taldearen ibilbideari begiradaxo bat emanez, ekitaldi gogoangarri bat aipatu digute: 2000. urtean UNESCOren jauregian, *Maite* abestu zutenean jaso zuten txalo zaparrada.

«Gaur egun, 42 kide dira. Gazteenak 24 urte ditu, baina gehienak edadetuagoak direla-eta gazte jendea behar dutela esan digute»

Baina aurrera begira ari dira lanean, eta udaberrirako bigarren diskoa grabatzeko asmotan dira: *Gospels & Spirituals*. Zorionak eta urte askotan! m



Erandioko txokoa sarean

Zer aurki daiteke **Internet-en** 'Erandio' hitza tekleatuta?

Bada, gauza gutxi, bai. Erandiok ez du presentzia handirik munduko sare nagusian, beste hainbat herri txiki askori jazotzen zaion legez. Azpimarratzekoa da, alabaina, udalari buruzko daturik eskuratu nahi duenak eskura duela. Aitzakiarik ez dago. Esaterako, Erandioko historia ezagutzera atsegin duenak www.arquired.es web orrira jo dezake; horretan hainbat eliza eta eraikuntzaren datuak erakusten ditu, Erandio Landako elizarenak edota udaletxearenak, kasu. Aukeran, www.ngw.nl izenekoan ere sar liteke berori, Erandioko ezkutuaren beraren historia eta zer esangura duen jakiteko. Edota, www.geocities.com/erandioidis/historia/historia.htm orrian Erandioko jaun batzuek XVII mendean Bizkaiko Batzar Nagusietan izan zuten papera azaltzen da.

Antzinako argazkirik bilatzen duenak, <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0077zbbk/rg0077.html> helbide luzea sakatuz, XX mendearen hasieran Erandio Landako elizaren egindako argazki bat topatzen du, Arantza Cuestaren eskutik.

Hala ere, informazio oparoena biltzen duen orria www.terra.es/personal3/aldecoa da, Astrabuduko Ignacio Aldecoa Ikaste-



txeko ikasle talde batek egina. Euskaraz, eta gazteleraz (ingelesez ere bai gauza batzuk) irakurtzeko aukera ematen du, eta Erandio zein Ignacio Aldecoa Ikastetxeari buruzko hainbat datu eskaintzeaz gain, eskolako aldizkariaren berri ere ematen du web honek. Gutxi izango balitz bi sarbide ditu egokiturik: bata lehen euskal e-posta zerbitzu euskalerra.org izenekoari dagokio, eta bestea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren web orrian sartzekoa da.

Gehiagorik jakiteko, sar zaitez edozein bilatzailetan eta tekleatu "Erandio" hitza. Aipaturiko web orriez gain, badira beste berri asko Erandiorekin lotuta. m

ATXAZPE MENDI TALDEAREN ASTE KULTURAL ETA MIKOLOGIKOA

Ikasturte berriaren hasieran ekitaldi mordoia bilduko duen aste kulturala prestatu dute Atxazpe mendi taldekoek. Urriaren 21etik 27ra egingo da aste Josu Murueta plazako kultur etxean. Alde batetik, mendizaleek hor hemen egindako espedizioei buruzko hitzaldi eta proiektioak eskaini ohi dituzte, espedizio buruek zuzenean kontatuztzen bizi izandako esperientziak. Bestetik, perretxikozaleentzat ere badute eskaintzarik. Horrela, hiru hitzaldi eta proiektio eskainiko dituzte. Astelehenean, urriak 21, Fernando Rubio izango da Astrabuduan, eta izotz gainean eskiz egindako zeharkaldi baten proiektioa emango du. Asteazkenean, Mikel Sainek pelikula bat ekarriko du, eta ostiralean, Euskal mitologiari buruzko hitzaldia izango da. Urriaren 26an, larunbata, perretxiko bila joateko txangoa antolatu dute eta igandean perretxikoen erakusketa. Horrez gain, aste osoan zehar izango dute zabalik mineral eta fosilen erakusketa kultur etxeko erakustaretoan. Atxazpek zuzendaritza talde berria dauka eta jende gazteak hartu du urteetan taldeburu izan direnen lekukoa. Gainera, udalarekin sinatutako hitzarmen bati esker aukera hobek eskaintzen dizkien lokal berriak ere izango ditu taldeak, Astrabuduko erdigunean, eta horrekin guztiarekin indarberrituta ekin nahi diote lanari.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

AENOR
Empresa Registrada
ER-1891/2001

AENOR
Gestión Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Villa de Plentzia, 18 behea
48930 Las Arenas | Getxo
Bizkaia

Tel.: 94 464 51 66
Fax: 94 480 54 70
e-mail: vasa@euskalnet.net

Kobrezko santurikan...

Kobrezkoak dituzte **joareak**, bai, baina ez dugu uste inongo santurik urtuko zutenik, abestian esaten den bezala. Ez dira nafarrak, Berangokoak baizik, eta duela lau urte osatu zuten **joaldun taldea**

1998an, Berangoko Simon de Otxandategi taldeko kideek Zubietara joan eta zanpantzarra bertan, jatorrizko lekuan, ikasi zuten. Ordudanik, hainbat tokitan jo dute. Diotenez, ez diete zubietar eta iturendarrei protagonismorik kendu nahi, asmatzaileei zor zaien begiruneagatik; euskal ohitura bat jendeari ezagutzen laguntzea da euren asmoa.



Zubieta eta Iturengo janzkerak desberdinak dira. Berangokoek lehenengoa erabiltzen dute

Ohituraz, dantza bakoitza jatorrizko lekuan ikastea gustatzen zaie Simon de Otxandategi dantza taldekoei. Halaxe egin zuten Zuberoko maskaradarekin, Arratiako jotarekin... eta, duela lau urte, zanpantzarrarekin. Zubietara joan eta hangoengandik ikasten hasi ziren; baina berehala konturatu ziren ez dela lan samurra, joareak behar bezala lotzetik hasi eta hain ezaguna den soinu ezaguna sortzeko moduan ibiltzeraino.

Orduko hartan hamarren bat lagun joan ziren, baina zaila zela ikusita, nahiago izan zuten erraztasun handiena agertu zuten bizpahiruek ondo ikastea, gero, Berangon, gainerakoei irakats ziezaieten. Halaxe hasi zen honezkero lau urte dirauen ibilbidea.

Beste kontu bat beharrezkoa duten materiala lortzea izan zen. Joareei dagokienez, zubietar eta iturendarrek sekretupean gorde nahi izaten dute non egiten diren, eta Berangokoek ere halaxe egitea eskatu digute. Bestelakoak, han-hemenka bilatuz lortu zituzten: adarrak, Bilboko hiltegiak; zaldi buztanak (bana eramaten dute eskumako eskuan), Gipuzkoan; arti-

leak, Nafarroako herrixka batean, kapelak beraiek egin zituzten... Jantziak, berriz, erraz lor daitezke, baita gure inguruan ere.

«Zaila zela ikusita, nahiago izan zuten erraztasun handiena agertu zuten bizpahiruek ondo ikastea»

Gaur egun, zortzi joare dituzte, eta laster beste bi lortzeko asmotan dabilta. *“Apurka-apurka egin behar da, ez da berehalako kontua”*, argitu dute. Diotenez, joareak ipintzea lan nekeza da (euretako hiruk baino ez dakite egiten), denbora behar duena eta gerrian min ederra ematen duena. Antza, haragian ziztada nabaritu eta arnasa sakon hartzea zaila denean jakiten da joareak ondo ipinita daudela. Bejondeiela. m

Non jo dute

- Berango, Plentzia, Sopela, Portu Zaharra, 2002ko Ibilaldia (Algorta), Hondarribia, Bermeo, Artxanda (Bilboren 700. urteurreneko jaialdia), Laukiz, Baranbio (Araba), Reus (Katalunia)



Berangoko bizimodua atsegin du Mary Rapson hegoafrikarrak

la ehun atzerritar

1995. urteaz geroztik **etorriak** dira Berangon bizi diren atzerritar gehienak, ia denak Europa eta Amerikako **hainbat herrialdeetatik**

Patricia Mary Rapson 1993tik bizi da Berangon. Hegoafrikarra da sortzez, Newcastle hirikoa hain zuzen, eta herrian dauden 95 atzerritarretako bat da. Batzuk lan kontuengatik etorri ziren, beste batzuk maitasunak bultzatuta. Patricia bigarren multzokoa da. Hegoafrikan gaur senarra duena ezagutu zuen, algortar bat, eta ikasketak amaitutakoan Euskal Herrira etorri zen haren bila.

Ia hasieratik Berangon bizi izan da, eta gustura dagoela dio: *“Berango herri aproposa da kanpotarrak bizi daitezten, herriko bizitzan murgiltzen badira behintzat”*. Patricia berak herriko hainbat ekimenean parte hartu izan du: antzerki taldean, Pasioan...

Patricia Rapson Berangon dauden bi afrikarretako bat da. Amerikarrak dira nagusi, 55 guztira, eta europarrak ondoren: 35. Azkenik, Asiatik etorritako hiru lagunek osatzen dute Berangon bizi diren

atzerritarren multzoa. Udalak aldizkari honi emandako datuen arabera, gehien-gehienak 1995etik hona etorritakoak dira, etxe berriak erruz eraikitzen hasi ziren garaian, hain zuzen ere. m

Atzerritarrek Berangon

Alemaniarrek	15
Kolonbiarrak	14
Boliviarrak	12
Ekuadortarrak	10
Belgikarrak	7
Argentinarrak	7
Holandarrak	4
Kubatarrak	3
Venezuelarrak	3
Filipinarrak	3
Suediarrak	3
Beste batzuk	14
<i>Guztira</i>	<i>95</i>



Bestelako gaiak

- Drogak
- Politika
- Bidaiak
- Osasuna
- Sexualitatea
- Munduko
- Literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79



Telletxe 15, Algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44



amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

BISITATU
GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIZOL moda



350 M²
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

[berango]

Roberto Fernández > futbito entrenatzailea

“Oraindino ilusiorik badaukat,
baina adina eta nekea ere
igarri egiten dira”



Roberto Fernandez, atzean ondo irabazitako hamaikaxko kopa dituela

56 urte ditu. Duela 37 Berangora etorri zen lanera Turtzioz sorterritik, gaur emaztea dena ezagutu, ezkondu eta seme bi izan zituen. Lanbidez galdaragilea da, baina herrian guztiek ezagutzen dute Karabigane futbito taldeko entrenatzaile modura. 24 urtez horretan ibili da eta.

Denbora luze horretan, Robertok herriko ume asko izan ditu bere aginduetara. Ezin gogoratu zenbat. Bere bulegoko gela txiki bietako batean argazki mordoa dauka, Karabiganen jokatu duten hainbat umeren aurpegiekin. Dagoeneko ezkondua dauden eta guraso diren umeak, kasu askotan. Oro har, oroitzapen polita utzi dute Robertorengan. Dioenez, oso ondo konpondu da beti haiekin, edozein adinetakoak izanda ere (6tik 11ara bitartekoak entrenatu izan ditu).

24 urtek pasadizo askorako beta ematen dute. “Guraso batzuk ditut gogoan”, dio Robertok, “baziren bere semeak derrigorrez jokatu behar zuela esaten zutenak, edo alda-

geletara aginduak ematera sartu nahi zutenak”. Hala ere, gutxi ei dira horrelakoak, eta sekula ez du istilurik izan.

Aurrera egiteko zailtasunak

Elkarrizketa kopaz inguratuta egin dugu. 120 edo 130 beharbada, apalategietan estu-estu, taldeak urtetan zehar egindako lanaren saria. Tamalez, baliteke gehiagorik ez sartzea bitrina hauetara, iaz lehiatzeari utzi behar izan baitzioten. Ofizialki, Karabigane taldea Berangoko eskolari dagokio, eta azken urteotako matrikulazio beherakadak kalte egin dio futbitoari. Legez, umeen %45 soilik izan daiteke eskolatik kanpokoak, eta baldintza horietan zaila da taldea osatzea. Hala ere, Robertok ez du etsi: deialdi bat prestatzen dabil, talde berria sortzeko asmoz. Oraindik ilusioa duela dio, urteek, nekeak, eta azken denboraldian talderik eratu ezin izanak sortu dion atsekabeak jota dagoela aitortu digun arren. m

[berango]

OSASUN ETXE BERRIA, HIL HONETAN ZABALIK

Hil honetatik aurrera, Berangoko osasun etxeak egoitza berria izango du. Hain zuzen, Moreaga kalean izango da, Eroskiren pare-parean. 20 kotxerentzako lekua edukiko duen aparkalekua ere izango du zentro berriak, eta autobus geltokia izango da hurbil. Eraikinak solairu bat dauka, 750 metro koadrokoa. Orain arteko osasun etxean eskaini diren zerbitzuak eskaintzen jarraituko du (medikuntza orokorra, erizaina, pediatria eta herriarrei arreta zerbitzua) eta, gainera, Berangoko biztanle kopuruak gora egin duela-eta laster sendagile gehiago izango dela aditzera eman dute. Izan ere, gaur egun 5.000 biztanle inguru ditu herriak, baina epe laburrean kopuru hori bikoiztu litekeela aurreikusten da.




Udalak 75 zaborrontzi berri ipini ditu herrian

Zabor bilketa berriturik Herriko enpresa batek du ardura


Irailaz geroztik Berangok zabor bilketa zerbitzu berria dauka. Aldakuntza nagusia poltsak kamioiratzeko sistemaren mekanizazioa da. Lehen eskuz sartu behar ziren, eta horrek bilketa motelegi eta zaratsuegi bihurtzen zuen. Gainera, 75 zaborrontzi berri ipini dira herrian. 1100 litroko kapazitatea dute (zaharrek baino handiagoak, beraz).

Zabor bilketak egunero izaten jarraitu-


ko du eta lehengo enpresa beraren esku egongo da. Hala ere, kontratu berriaren arabera, altzari eta bestelako tramankulu handien bilketa sarriago izango da. Orain arte hil bakoitzeko lehen eta hirugarren barikuetan egiten zen; irailetik, astelehen, eguazten eta barikuro. Altzariak utzi gura dituenak ez du alde aurretik jakinarazi behar; nahikoa izango du aipatu egunen bezperan zaborrontzien alboan uztea. m




ALGORTA
dj.ak
antzerkia
erakusketak



Taberna
Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



jateko



urdaitegia • frutadenda • elikagaiak
Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

[albuma]



Argazkiotan, aspaldian ez dabilen Berangoko teileria, Pozozabaleko ur biltegi abandonatua, funtziorik gabeko telefono seinale bat eta berriki zaharberritu duten Lamiakoko garbilekua




Iraganeko arrastoak

Garai batean denok erabiltzen genituen, eta gure eguneroko bizitzaren parte garrantzitsua ziren. Egun batez, ordea, beren funtzioa agortu egin zen; hala ere, inork ez zituen zeuden tokitik kendu. Beste garai bateko bizimoduen lekuko geratu zitzaizkigun, etorkizun eroaren aldakuntzei adi-adi begira.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Erandioko kaian dagoen garabi zaharra (goian), Tunelboka hontzartatzatik txatarra igotzeko erabiltzen zen tramankulua (argazki hau) eta Ibaizabalen txalupak lotzeko txingeta Lamiakon (alboan)



[berbetan]

Ez du apenas aurkezpen berbarik behar; izena du Fermin Muguruza eta euskara ez ezik musika –multikolorea– da bere hizkuntza. Oraintsu arte isilik egon bada ere, komunikatu, hitz egin, ideiak zabaldu, hitza hartu, izan dira bere lemak. Esploradorea, bidaiaria, internazionalista, bidegabekarien aurrean kikiltzen ez den horietakoa... Metak disketxeak Irunen duen bulegoan hartu gintuen eta elkarrizketatu baino gehiago, hitz egiten, berbetan egon ginen Ferminekin.

Erne! Atzera dator-eta...

Fermin Muguruza

Testua: **Jokin Aspuru** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Fermin, pentsa ezazu ez zaitudala eza gutzen, aurkeztu ezazu zure burua faborez?

—Nire nortasunari buruzko gogoetak kantuen bidez egiten saiatzen naiz. Hala ere, esan ahal dizut, 39 urte ditudala, horietatik 20 musika munduan eman ditudala, eta eten gabe ari naizela gauzak bilatzen. Ez dakit aurkitzeko ezer dagoen ala egiazko plazerra gauzak bilatzera joatean baino ez datzan, nolabait Kavafisen *Itaka* olerkian bezala. Utopiaruntz joatea bidaia bat dela esatera dator, baina azkenean benetan norbera asetzen duena bidaia bera dela dio.

—Zer topatuko dugu zure disko berrian?

—Beste urrats bat nire ibilbidean, nire bidaian. Talde finko bi izan ditut, Kortatu eta

Negu Gorriak, gero kolaborazio bat egin nuen Dut taldearekin eta harrezkero beste musikari batzuekin elkartzen hasi nintzen lanak plazaratzeko, askatasun artiskoaren aldetik horrela gustatzen zitzaidalako. Orain egin dudana horixe izan da: beste batzuekin elkartu eta diskoa egin. Baina ez kolaborazio hutsa egiteko, banda baten antzera lan egin nahi izan dut eta eurekin kantak landu.

Kantu lasaiagoak jorratu nahi nituen baina, bestetik, alde intrumental oso aberatsarekin, eta orain arte apur bat urrunak izan zaizkidan beste estilo batzuetara hurbildu naiz, esaterako jazz, eta adibidez haize sekzioa jazz mundutik dator. Bestetik, ni betidanik musika beltzaren zale amorratua izan

naiz: soul, blues... Soul-aren koroek ematen duten nostalgikotasun ikutu hori landu nahi nuen eta horregatik emakumezko bi ekarri ditut koroak egiteko. Arriskatu ere egin nahi nuen eta horregatik Joseba Tapia deitu nuen. Kanta gehienetan trikitixa azaltzen da eta nabarmena da bere pisua bandan. Eta, hirugarrenik, binilozko platon erabilpena aipatuko nuke; soinuak asmatu ditugu... Hori egiten saiatu naiz eta ni oso pozik geratu naiz.

—Disko bakoitzean banda aldatzen ari zara, zergatik?

—Askatasun kreatiboagatik. Badakit talde batean jotzea zer den eta gauza zoragarria da, baina momentuz, nahiago dut nik neuk

Berriki bere azken proposamena kaleratu du Fermin Muguruzak: *In-Komunikazioa*. Azaroaren 30ean Anoetako belodromoan, aurkezpen kontzertua egingo du.





DANI BRANCO



LUNA



C. BERNARD

Goian, Fermin iaz Irunen Erdian, Manu Chaorekin Madrilen, 1998 Behean, Bernado Atxagarekin Gasteizen, 1997

antolaketa egin, musikariak bilatu, eurekin elkartu eta ea zer ateratzen den. Hori ez da gauza arraroa. Hor da Ruper Ordorikaren kasua. Zuzenean musikari batzuekin jotzen du, baina diskoak grabatzeko beste batzuk bilatzen ditu. Gainera, hori musikari batentzat oso gauza satisfactorioa izaten da. —**Ia hogeit urte musikagintzan, beti apurtzen, estilo desberdinak jorratzen. Zer da zure ibilbidean mantentzen dena?**

“Ni izan naiz beti ateo, baina ateo konbentzitua, antikatoliko amorratua; bai, bai, bai!”

—Jamaikan sortu eta beste leku batzuetara hedatu zen musikarekiko nire pasioa. Nik uste dut gakoa Kortaturen lehenengo diskoan dagoela, azalean aizkolaria azaltzen zen hura. Hor dago punrocka, reggaea, ska, hardcorea, erritmo latinoak... Karibean dago guztia, bai Jamaikan, bai Kuban, bai Haitin... Mestizaiaren irlak izan dira, hor egosi dira kristonak eta eragin handia izan dute munduan.

Hitzen aldetik, kronistaren papera egin izan dut beti. Batzuk kazetariak dira, nik musikaren bidez azaldu ditut nire bizipenak, ezintasunak, konpromisoa...

—**Konpromisoa aipatu duzu, nondik ateratzen da beti lehenengo lerroan egoteko indarra?**

“Manu Chao konbentzitu dut bere multinaziola [Virgin] utzi dezan”

—Mugitzen bazara, gutxieneko sentsibilitaterik badaukazu, bidegabekeria inoiz baino handiagoa dela begibistan dago eta horregatik parte hartzen saiatzen naiz. Parte hartzeko modurik egokiena batentzat sindikatu batean lan egitea izango da, beste batentzat idaztea... Niretzat musika da, musika komunikatzeko, salatzeo tresna baita.

—**Baztertu dezagun une batez musika, Euskal Herrian garai latzak bizitzen ari gara eta antza, bizi izango ditugu...**

—Diskoetan handik eta hemendik gauza asko hartzen ditut. Honetan adibidez Xabier Amurizaren bertso batekin hasten da kanta bat. Larunbat honetan [irailak 14] bera izan zen manifestazioa deitu zunenetako bat. Bilbon egon nintzen eta han gertatutakoak... Horrek bultzatzen zaitu zure lanean jarraitzea, zure buruari esatera: hau da nire tokia. Euskararekin bezala. Nire lorpen handienetakoa atzerrira euskaraz abes-

ten atera izana da. Multinazionalen aurkako naiz, ez dut eurekin sinatzen, eta hala ere, lortu dut zirkuito independente baten bidez ateratzea, ia mundu osoan zehar euskaraz kantatzea.

—**Irtenbiderik badaukagu herri honetan?**
—Bilbon inpotentzia handia sentitu nuen, pasatzen uzten ez zaituztenean, errepre-sioa... Ibarretzek kontsulta egiteko momentua da. Eta galderak izan behar du: zer nahi duzue, autonomia ala independentzia? Eta botoa eman dezagun. Nik, jakina, nahiago dut independentzia. Independentzia arlo guztietan: erabakitzeo independentzia, norberak bere gorputzarekin nahi duena egiteko independentzia, musikaren munduan independentzia... Multinazionalen

kontra nagoelako eta haiek ere badirelako globalizazioaren errudunak.

—**Hariari tiratuz, multinazionala eskaintzarik jaso al duzu inoiz?**

—Disko bat kaleratzera noan bakoitzean badauzkat batzuk. Lehen bost ziren, orain, botere kontzentrazio handi horregatik, hiru direla uste dut. Baina bost zirenean bostetik etortzen ziren eskaintzak. Orain proposamen oso fuerte bat etorri zait, mundu osorako, kilo asko mahai gainean jarri dizkidate. Baina esan nien: zoazte pikutara! Eta


horrek gustu itzela ematen du. Gero txantaia emozionalarekin ere jokatzeko dute, euskaraz egiten baduzu ona ere bada zure herriarentzat... Bestetik, esan behar dut, pertsonak ere badirela eta batzuekin oso harreman ona daukadala. Beno, gauza bat esango dizut: konbentzitu dut Manu Chao Virgin uzteko, harro nago. Bere zuzeneko azken diskoa Virginekin azkena izango da. Eta gaur horren berri ez dauka apenas inork. UKrako primizia! (barre)

—**Merci, merci, argitaratuko dugu. Multinazionalak, dirua... Zenbat diru eta bestetik, zer daroazu sakelean?**

—Kartera, eta karteran beti nire abokatua den Miguel Castells-en telefono zenbakia (barre), badaezpada! Eta gero, DNia, eta gidatzeko karneta, besterik ez. 100 euro inguru eramaten dut beti. Musikariak apur bat nomadak gara eta igual lagun batekin geratzen naiz eta gau osoa eman dezaket berarekin. Baditugu gure konpromisoak ere, nik neure seme-alabekin adibidez, edo elkarrizketa hau, baina momentu librean ere hartu behar ditugu. Ahh! Ahaztu zait, beti pua bat eroaten dut gainean.

—**Nor miresten du Fermin Muguruza?**
—Jende pila bat, baina miretsi ez da hitzik egokiena. Beti ikasten dihardut eta hau katea bat bezalakoa da. Euskaraz badago esatera bat: soka ez da eten. Gu, euskaraz abesten dugunok, ez gara belaunaldi espontaneo bat, bagatoz nonbaitetik... Gu baino lehenago izan zen *Ez dok hamahiru*, eta gero beste batzuk. Adibidez Itoiz, Euskal Herriak eman duen pop talderik handienetakoa, erdaraz kantatzeko proposamenei uko egin ziona. Proposamen bi izan zituzten. Bat multinazional batekin sinatzeko eta bestea erdaraz kantatzeko, bai espainolez edo frantsesez. *Rock Radikal*-eko talde asko baino askoz erradikalagoak izan ziren. Baina miresten nuen pertsonaz ari ginen, ezta? Ba... jende pilo bat. Kirol munduan esaterako, Mohamed Ali, bere garaian Vietnamera ez zihoala publikoki esatera ausartu zena, MalcomX-rekin lotura zuen. *The Clash* taldeak eragin handia izan zuen nigan, bai musikan eta bai testuetan. Eta *Specials*. Klabeak izan ziren biak Kortaturen sorre-

Diskografia



Kortatu, Cicatriz...
Batzuen artean
Soñua 1985



Kortatu
Kortatu
Soñua 1985



El estado de las cosas
Kortatu
Soñua 1986



Kolpez kolpe
Kortatu
Oihuka 1988



Azken guda dantza
Batzuen artean
Nola! 1988



Negu gorriak
Negu gorriak
Oihuka 1990




Gure jarrera
Negu gorriak
Esan ozenki 1991



Gora herria
Negu gorriak
Esan ozenki 1991



Borreroak baditu...
Negu gorriak
Esan ozenki 1993



Hipokresiarik stop (zuz.)
Negu gorriak
Esan ozenki 1994



Idea zabaldu
Negu gorriak
Esan ozenki 1995



Ustelkeria
Negu gorriak
Esan ozenki 1996



Salam agur
Negu gorriak
Esan ozenki 1996



Ireki atean
F. Muguruza eta Dut
Esan ozenki 1997



Amodio eta gorrotzko...
Fermin Muguruza
Esan ozenki, El europeo 98



Brigadistak S. System
Fermin Muguruza
Esan ozenki 1999



erREMIXak
Fermin Muguruza
Esan ozenki 1999



FM 99 Dub Manifest
Fermin Muguruza
Esan ozenki 2000



Big Beñat
Fermin Muguruza
Korrika



In-Komunikazioa
Fermin Muguruza
Metak 2002



Fermin Muguruza Dub Manifest, 1999. Alboan, Negu Gorriak taldea Donostian, 1993.

LABUR-LABUR

Izena: Fermin Muguruza.

Adina: 39 urte.

Azken kontzertua: "Buju Banton jamaikarrarena Hendaian. Eta Da Phazz alemaniarrena Jam aretoan. Kabaretaren espiritua aldarrikatzen dute teknoa, dance, housea... landuz".

Azken liburua: *Rebel Mayo Colorao*. Paddy Rekaldek bere azken lana pasatu zidan fotokopiatan, aurkezpen prentsaurrean nire iritzia eman dezadan. Bestetik esan behar dut niretzat Sarrionandia "totala" dela. Eta Atxaga? Zer esan? Totem bat. Euskara ikasten hasi nintzen bere testuak irakurri maitemindu nintzen hizkuntzarekin".

Pelikula bat: Davyd Lynch-en jarraitzailea naiz, beno eta baita Coen anaiena eta beste zuzendari askorena. Javier Corcuerearen *La espalda del mundo*-k txunditu ninduen. Nire herrian pasatu zutenean, bukaeran, pelikula amaitu eta gero kredituak pasatu zituztenean ez zen inor jesarlekutik altxatu.

Amets bat: Oraintxe bertan bake

ran. Musika beltz guztia, Otis Reding bat adibidez... Politikoak: Karl Marx, Latinoamerikako mugimendu gerrilerroa...

Ahh! Ez dut ahaztu nahi. Kirolean Julian Retegi miresten dut. Nik etxean lau koadro dauzkat, batean, jakina, Julian Retegi azaltzen da. Beste batean, Marlem Dietrich; bere bizitza aluzinantea da; anti-faszista sutua, aktorea izugarria, askatasunaren paradigma... Hirugarrenean, Bruce Lee dago, Retegirenaren azpian, biak baitira kirolariak. Eta laugarrenean pelikula baten irudia dago, nola ez: *La dolce vita*.

—Mundu lurta honekin konprometitua, zelan konpontzen zara bestearekin?

—Ni beti izan naiz ateo, baina ateo konbentzitua, antikatoliko amorratua; bai, bai,

“Euskara ikasten hasi nintzenean, Atxagaren testuak irakurri maitemindu nintzen hizkuntzarekin”

bai! Kristautasunarekin berriz oso harreman ona izan nuen Latinoamerikan, baina hango beste kontu bat da.

Nola zen hura? *El padre, el hijo y el espíritu santo*, horrelako trinidad bat. Beno ba, nik ere banuen nire *hirutasuna*: Marilyn Monroe, Bruce Lee eta Che Guevara (barre). Gazte denboran geneukan katolizismoaren kontrako zera hori galdu da, inoiz baino okerrago gaude. Berriz ere ume guztiak lehenengo jaunartzea hartzen, ezkontzak, en fin, *la ostia*...

—Zeintzuk dira zure beldurrak, gauz

azaltzen zaizkizun mamuak?

—Determinazio handikoa naiz, beldurra baino gehiago sentitzen dut inpotentzia. Bestetik, semea eta alaba dauzkat eta batzuetan burutik pasatzen zait istripuren bat gertatzea, eta momentuan bedurra sentitzen dut. Behin auto batek haur bat harrapatzen ikusi nuelako izango da. Horrelako paranoiak ere izaten ditut. Baina beldurrak eta mamuak usatzeko musika autolaguntzarako nire terapia da.

—Amaitzeko Fermin, noiz Kortatu-ren emanaldi bat?

—Bere garaian publikoki konpromiso bi aurkezketu genituen: Negu Gorriak bezala, Galindorekin auzia irabaztean atzera joko genuela, eta hitza bete genuen. Eta bigarre-

na, Kortatu bezala euskal presoak Euskal Herrian kalean libre daudenean emanaldia egingo genuela. Batzuk esan didate: puff... ia ezinezkoa balitz bezala, baina begiratu Irlanda. Nik, hango bake prozesuagatik, justu-justu, azken presoak askatu zituztenean jo nuen Belfasten, aste berean. Hemen noiz gerta daiteke halakorik? Bost urte barru? Ba 45 urtekin berriro hartuko dut telekasterra... eta hamar urte barru gertatzen bada ere, ba, hantxe ikusiko duzue Fermin Muguruza 50 urterekin *La linea del frente* pozik eta saltoka jotzen. m

Zer da Egizu?

Egizu Getxon euskaraz berba egitea bultzatu nahi duen proiektua da. Guztiok dakigu edozein hizkuntza ondo ikasteko praktika behar beharrezkoa dela eta horixe da, hain zuzen, Egizuk lortu nahi duena, berba egitea, egitea.

Egizu zeuk ere!!


Zer eskaintzen dizu Egizuk? Berbalaguna

Euskara ikasten ari direnak eta euskaldunak harremanetan ipintzea beren adin, zaletasun eta ahalmenez arabera. Adibidez: astean behin geratzea kirola egiteko, mendira joateko, paseatzeko, kafetxo bat hartzeko...

Izan zaitetz zeu ere berbalaguna!!

Kultur ekintzak

Egizuk kultur jarduerak antolatzen ditu: tailerrak, hitzaldiak, ipuin kontalariak...



Izen emateko edota informazioa jasotzeko bidali fitxa hau edo hurbildu zaitetz helbide honetara (arratsalde, 16.00-20.00):

Karitate Kalea, 1. Sotoa 10. bulegoa / Algorta (Getxo)

Idatzi gure helbide elektronikora:
egizu@hotmail.com

Edo deitu gure telefonoetara:
94 491 43 57 / 605 73 99 16

Izen Abizenak

Helbidea

Herria

Telefonoa **Sakeleko telefonoa**

E-mail

Zertan interesatuta zaude

[erreportajea]

Gero eta gehiago gara eta gero eta auto gehiago daukagu. Nonbaitetik ibili behar automobilak. Azken hamarkadan, zirkulazioa arintzeko bide sare berria eratu da Uribe Kostan, baina oraindik zati bat falta zaio. Bistan da. Bizkaiko Aldundiak du hemen errepideen ardura, eta hain zuzen bertako langile batek eman digu korredorea behin-betiko burutzeko dauden asmoen berri, eskualdeari dagozkion beste batzuekin batera. Kontua aspalditik dator.

Korredorea

Bide berriak Uribe Kostan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Frankismoa sasoi betean zegoen. Joan den mendeko 60ko hamarkadako azken urteak ziren eta Bilbok hazkunde esponentziala zeukan. Horrek sortarazi zituen garapen-plangintza handietako bat Uribe Kostari zegokion, ordurako aurreikusita baitzegoen hiriburuaren hazkunde hori honantz, gure eskualderantz etortzea.

Asmo nagusia Santander-Gorliz autopista eraikitzea zen. Baina lanak hastear zehelada 70ko hamarkadako krisi ekonomikoa etorri zen, eta haren atzetik, Estatu espainiarreko trantsizio politikoa. Gertakizun bi horiek estatuaren inbertsioak geldiarazi zituzten, eta planak garai hobeen zain lotu ziren apalategiren batean.

Azkenik, 1982an, errepideen eskumena Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuen. Geroa-

go, 85ean, Aldundiei eman zien. Orduan, Bizkaiko Aldundiak frankismo garaiko plangintzak berbegiratu zituen, egokituz. Ardura hori zuenetako bat Carlos Estefanía zen, gaur egun Lan Publikoen Saileko Planifikazio eta Sistemaren Operazio zuzendariordea dena. Berak azaldu digu zertan zetzan plan berria, eta nola gauzatu zen. Edo, hobeto esanda, nola gauzatzen ari den.

“Hazkundera guztiz egonkortuta zegoela ikusi genuen, eta beraz, hamabost urte lehenagoko plangintza eskerge ez zutela zentzurik”, azaldu digu Estefanía. “82-85 epealdian, Jaurlaritzak eskumena hartu zuenean, Rontegiko zubiko lanak amaitu ziren eta, jadanik ardura Aldundiaren esku zegoenean, Bilboko ingururako plangintza berria diseinatzen hasi ginen”.

Hala sortu zen Uribe Kostako korredore ezagunaren proiektua. Berez, korredorea Artatzako errotondan hasten da (La Avanzada delakoa lehenagokoa da) eta hiru zati ditu: hortik Boluera (Fadura) doana, 1994an amaitu zena; Boluetik Mimenagara (Berango) doana, 1998an funtzionatzen hasi zena, eta oraindik hasteko dagoen hirugarren bat.

Komunikazio ardatz bi

Korredorea, baina, plan handiago baten zatia baino ez da. Carlos Estefaníaaren esanetan, Gorlizerainoko autopista handia eraikitzeko asmoaren ordean, Aldundiak alternatiba bat garatu zen 80ko hamarkadaren amaieran. *“Autopistatzar hura egin beharrean, Uribe Kostako zirkulazioa ardatz bitan banatzea hobe izango zela pentsatu genuen”.*

«Uribe Kostako korredorearen hirugarren zatia zubi bidez igaroko da Mimenagako errotondaren gainetik»



Ezkerrean, Unbeko errepidea zabaltzeko asmoa du Bizkaiko Foru Aldundiak. Goian: Larrabasterran sortzen diren auto-ilarak kilometro askotara igartzen dira..

Inguru honetan (Berango eta Larrabasterraren arteko muga) errotonda handia egingo da. Hainbat adar abiatuko dira bertatik.

«Aldundiaren plangintzak ardatz bitan du oinarria. Bata, kostaldekoa, Leioatik Sopelarinokoa, korredorea bera da; bestea Unbetik igarotzen da»

Egungo trafiko arazoak

Orain arte egindako korredorearen zatiak ez dituzte eskualdeko trafiko arazoak konpondu, ez guztiz behintzat. Egitekotan, leundu egingo zuten. Egia da Bilbotik Mimenagako (Berango) errotondara arte berehala ailegatzen dela, baina hor hasten dira buruhausteak; askoren ustez, korredorea existitu baino lehenago zeudenak baino larriagoak.

Uda partean, eta oro har eguraldi ona egiten duen bakoitzean, aipatu errotondatik aurrera (edo errotondaraino, orduaren arabera) sekulako ilarak izaten dira. Maila apalagoan, baina hala ere edonoren pazientzia akabatzen duten. Eguneroko gauza bertsua gertatzen da arratsaldeko zenbait orduetan, jende gehiena lanetik irteten ari denean hain zuzen.

Argi dago egoerari konponbideren bat emateko ezin dela korredorearen hirugarren zatia amaitu arte itxaron. Carlos Estefaniak adierazi digunez, "zerbait egin nahi da urte honetan bertan edo hurrengoaren hasieran. Zehazki, arazoaren iturburari buruzko azterketa egiten ari gara; Larrabasterran harategiaren alboko semaforoak, hondartzara igotzen den errepidearen bidegurutzak, hor dagoen norantza aldaketak eta metrotik irteten den jendeak etengabe erabiltzen dituen zebra-bideak osatzen duten multzoak ari naiz". Esandakoa gutxi balitz, kontuan hartu behar da denda askotxo dagoela inguru horretan, eta sarritan bigarren ilaran aparkatutako kotxeek zirkulazioa oztopatzen dutela. Diputazioan aztertzen ari diren neurrien artean, alde horretan aparkatzea eragozteko izango lizateke bat; edo, behintzat, jendeak era egokian aparkatzeko moduak bilatzea.

Ardatz horietako bat La Avanzadak eta korredoreak berak osatzen dute; bestea, berriz, Unbetik igarotzen da. Bi ardatz paralelo horiek dagoeneko existitzen diren beste lauren bidez elkartzen dira. Alegia, Sopelatik Urdulizera doan errepidea; Gatzarriñetik Larrabasterrara doana; Berangotik Pozozabalera doana; azkenik, Leioako unibertsitatearen albotik pasatuz Akerlandako parkera heltzen dena.

Getxo, Berango eta Sopelako hazkundera handiagoa izanik, Artatzako errotondaren eta Sopelaren artean hiru karriletako autobia (korredorea) egitea erabaki zen. Baita egin ere. Unbeko ardatzak, aldiz, ez du horrenbeste arazo, eta horregatik asmoa errepide normala egitea zen, aldapa dagoenetan hiru karrilekoa eta ordekan bikoia. Oraingoan, Unbek bere horretan dirau, baina epe ertainean errepidea gaurko bost metroko zabaleratik zazpi metrora handituko da.

«Carlos Estefaniaren esanetan, hirugarren faseak aurreko biek baino kalte txikiagoa egingo dio ingurumenari»

Korredoreari dagokionez, lehen bi zatiak eginda daude gorago aipatu bezala. 1991n inguruko udalekin akordioa lortu zuen Aldundiak; proiektua udal bakoitzaren plangintzan jaso eta 1992 edo 1993an (horretan zalantza du Carlos Estefaniak) aurkezpen publikoa egin zen. Ondoren, ondo ezagutzen ditugun lanak hasi ziren. Oraingoz, Mimenagako errotondaraino ailegatzen da korredorea; azken faseari ekin arteko bitarterako, Berango inguratzen duen errepidea egin zen ("by-pass" esaten dio Estefaniak), herria bera eskualdeko trafikoa-ren zama handiaz libratuz. By-pass delako horrek errepide zaharrarekin bat egiten du Eroski parean eta, autoa erabiltzen duzuenok ondo dakizuenek, arazoz gainezkako gunea dugu gaur egun.

Azken zatia, hastear
Korredorearen hirugarren zatia falta da, eta

hori laster hasiko dira egiten. Carlos Estefaniak azaldu digu plan zehatza zein den: "Autopista bat egingo da, orain Mimenagaraino heltzen denari jarraipena emanez. Errotonda saihesteko, zubi bi egingo dira haren gainetik. Autopista horren bideetako bat dagoeneko eginda dagoen Berangoko by-passa izango da, eta bestea Kurtxe ingurutik igaroko da". Bide berri hori Berango eta Larrabasterraren arteko mugan trenbidearen gainetik doan zubi arriskutsuraino ailegatuko da. Han errotonda handi bat izango da, "gaurko errepidearen gainean egongo dena", eta errotonda horretatik hainbat adar abiatuko dira. "Adarretako bat Azkorri eta Larrabasterrako hondartzetartantz joango da", dio Estefaniak. "Beste batek Urko kirol zonaldea inguratuko du Ander Deuna ikastolaren parera arte, han Gatzarriñera doan bidearekin bat egiteko. Bigarren adar honetatik Berangoko industri-gunera joango den

bide bat aterako da, eta Larrabasterrako metro geltokira doan kalearekin lotura ere edukiko du. Azkenik, hirugarren adarrak Larrabasterrarekin bat egingo du". Honekin lortu gura dena Sopelak eta Larrabasterrak euren ez den trafikorik ez pairatzea da.

Proiektu hau onartuta dago, datak guztiz zehaztu barik dauden arren. Hala ere, eta Estefaniaren ustez, "datorren agintaldian egingo da, gauzak normal joanez gero". 2003ko maiatzean hauteskundeak izango dira, eta haien arabera lehentasunak alda litezke, baina arazoak daude deskribatu dizuegun proiektua datozen lau urteetan egingo dela pentsatzeko.

Korredorearen hirugarren fase honek ingurumenari izango duen eraginari buruz, Estefaniak adierazi du aurreko biek baino txikiagoa izango dela. "Ez da etxerik botako eta ez da bezegunerik zeharkatuko, landa batzuk eta eukaliptu baso bat baino ez". m



Eskolara

Ez gaude Estatu Batuetan, eta irakasleek ez dute baletatik babesteko jakarrik jantzi behar, oraingoz behintzat. Gure inguruko maisu eta andereñoek askoz bizimodu lasaiagoa dute telebistako zenbait irudik erakusten digutena baino. Baina ez pentsa zailtasunik gabeko lana denik haiena. Ikasleak beti ikasle. Opor askotxo dutela? Ez dute ukatzen, baina aldi berean beren lanaren garrantzia aldarrikatu gura dute. Motxila bete arazo daukate eta.

Testuak: Unai Brea Argazkiak; Asier Mentxaka

Jabi Bravo. Ander Deuna ikastola. Denborak aldatuz doaz

Irakaskuntzan bizitza erdia darama 40 urteko berriztar honek, eta duela 15 urteko ikasleak eta oraingoak berdinak ez direla uste du. Dena aldatu ei da: gurasoen ikuspuntua, zenbait balore, gizartea bera... Horrek guztiak eragina du irakaskuntzan eta, beraz, irakaslearen lanean. *“Gu, ikastolan, umeak bezitzen ahalegintzen gara, baina argi dago ikastola ez dela nabikoa”*. Inguruaren eragina bortitza da, zer esanik ez telebistarena. Gaur egun, Jabik dioenez, *“erantzun desegokiak ematen dituzte, errespetu gutxiago daukate...”*. Hala ere, Jabiren ikasleak gaztetxoak dira oraindik, 10 edo 11 urte, eta kontua ez da hain gogorra adin horretan. Bai, ordea, *“13, 14 edo 15 dituztenen kasuan”*. Jabik eskarmentu ederra du lanean honezkero. *“21 urterekin hasi nintzen eta gurasoak etortzen zitzaizkidanean kikildu egiten nintzen. Orain badaukat eskarmenturik irakasle moduan eta baita guraso moduan ere, eta desberdina da”*. Hots, ez dago “bel-durtuko” duen gurasorik. Baina, petralegiak izaten dira gurasoak? *“Ez, gehienak oso modu onean etortzen dira. Exijentzia maila handiagoa da, baina azken batean denok gara exijenteak”*. m

“Oraingo umeek erantzun desegokiak ematen dituzte. Errespetu gutxiago daukate”



Marisol Atxurra. Ander Deuna ikastola. Irakatsi eta ikasi

Marisol Atxurra lekeitiarra Ander Deuna ikastolako ikasketaburua izan da azken bost urteotan. Ardura hori dela-eta, harreman estua izan du gurasoekin, berez edozein irakasle izan ohi duena baino sakonagoa. Eta, dioenez, bada gaur egungo gurasoengan oso hedatuta dagoen gaitza. Izan ere, gizarte osoak pairatzen duen bera: denbora falta, alegia. *“Konturatzen gara familia-ko bikotekide biek ordu askoan lan egiten dutela eta ez dutela denborarik umeeekin egoteko”*. Gurasoen ordean, denbora hori irakasleek eskaini behar dutela dio; aita eta amaren lanaren zati bat bete, alegia. *“Ez dut esango hutsune afektibo bat bete behar dugunik, baina bai balore batzuk irakatsi, lehen gurasoena soilik zen lan bat egin. Hala ere, ez dago gure esku balore guztiak irakastea; ahal duguna egiten dugu”*.

Irakaslearen lana kanpotik pentsa litekeena baino gogorragoa dela dio. *“Hemen eten gabe ari gara eguneratzen eta berritzen, eta horrek heziketa bat eskatzen du”,* azaldu digu. *“Hemengo irakasleen %90 nolabaiteko heziketa hartzen ari da; jende askok gogoratzen du bi hilabeteko oporraldia dugula, baina inork ez daki geure buruak eguneratzen zelako lana hartzen dugun”*. m

“Inork ez daki hezitzen eta eguneratzen zelako lana hartzen dugun”





Izaskun Mentxaka. Geroa ikastola. **Irakaslearen psikologia**

Izaskun duela “17 edo 18 urte” da irakaslea. Kanpotik ikusita bere lanak pagotxa ematen duela esan diogunean, berehala erantzun du: *“Esan esaten da, bai, baina bizi egin behar da hau zer den jakiteko. Umeekin egon behar da, hainbat orduz eta, gainera, hau ez da lehen bezala; umeei gauzak eskaini behar zaizkie pozik eta motibatuta egon daitezen”*. Horrek, Izaskunek dioenez, lan itzela eskatzen du materialak, egitarauak, planteamenduak eta beste hamaika kontu prestatzen. *“Oporrak? Baditugu, bai, baina beharrezkoak dira zoratuta ez ibiltzeko”*.

Lana, bestalde, ez zaio arratsaldeko txirrinak jotzen duenean amaitzen. *“Pertonekin ari gara lanean”,* dio, *“ez bostetan amata eta burrango goizean berdin-berdin topatzen dituzun makinekin”*. Umeek arazoak dituzte, eta arazo horiek irakaslearen karpetan joaten dira berarekin batera. *“Psikologo lana egin behar dugu askotan. Umeak, beraren gaitasunaren arabera, zuk aurreikusi dituzun emaitzak lortzen ez dituenean, atzean arazoren bat dagoelako izan daiteke, eta berau konpontzeko eginahalak egin behar dira”* argitu zigun Izaskunek. ^m

“Oporrak baditugu, bai, baina behar-beharrezkoak dira zoratuta ez amaitzeko”

Asier Bidaurrezaga. Aixerrota institutua. **Nerabearen egonezina**

Izenburua ez dagokio Asierri berari, noski, beraren ikasleei baizik. *“Ez dira trankil egoten”,* diosku, baina ez ezazue pentsa gure solaskidea txarto moldatzen denik. Adin kontua baino ez da, antza. Asierri aurten egokitu zaizkion ikasleak 15 eta 16 urtekoak dira, *“beti izaten ditut 14 eta 17 bitartekoak”*. Baina horrek ez du ekiditen haiekin duen harremana ona izatea. Horrela izan da, behintzat, Asierrek Aixerrota Institutuan darमतзан bost urteetan. Irakaskuntzan, berriz, orain bederatzi urte hasi zen. Ikasleentzat, tradizioz, oso latza izaten den garai baten gainean berba egin digu Asierrek: azterketa sasoi madarikatua, alegia. Eta, ikasleentzat ez ezik, irakasleentzat ere gogorra dela esan digu. *“Guk aurretik, azterketak izaten diren bitartean eta ondoren bizi dugu hori. Argi dago ez dela lan nekagarria fisikoki, baina, ez dakit urduritasunak eraginda edo zergatik, gorputzak nekea pairatzen du”*. Horri guztiari, epaitu behar duenaren erantzukizuna gaineratu behar zaio. *“Ni neu, behintzat, urduri jartzen nau erabaki beharrak”*. Dena den, Asierrek ez du zalantzarik ikasleek eurek azterketa sistemari itsu-itsu sinesten dutela. ^m

“Urduri jartzen erabaki beharrak, batez ere ikasturteko azken azterketak direnean”



Loli Hernández. Geroa ikastola. **Neurtu ezin den lana**

Loli Hernández getxoztarrak lanbidean darमतзан 23 urteen eskarmentuaren talaiatik berba egin digu. Eta, besteak beste, irakasleek etxera eramaten dituzten lanez aritu zaigu, umeak ez dira eta “ohore” hori duten bakarrak. *“Geuk ere lan handia eroaten dugu etxera”,* azaldu digu. *“Gertatzen dena zera da: ezin dela neurtu”*. Ez, behinik behin, magnitude arruntak erabilita. Izan ere, zuzenketa, materialen prestakuntza eta abarrez gain, proiektu berri batean murgilduta egoteak eragiten duen “lana” hartu behar da kontuan, Loliren esanetan. Ohera sartzeko unean ere burmuinak astintzen egotea, alegia.

Ikasgai “maria” delakoei buruz ere mintzatu gara Lolirekin. Betidaniko estigma horrek bizirik dirauela dio, gizarte mailan halaxe delako (esan dezagun bide batez). *“Ikasleen etxetan arlo batzuei ez zaie balio bera ematen. Plastika dela, soinketa dela, musika dela...”*. Geroa-n, adibidez, garrantzia eman gura diete ikasgai baztertuoi eta, Lolik adierazi digunez, horietarako irakasle espezializatuak dauzkate lehen hezkuntzan, toki askotan ez bezala. ^m

“Guk etxera eroaten dugun lana ez da beti neurgarria. Arazo baten irtenbidea topatu arte, zaila da deskonektatzea”

Karmele Alkalde. Aixerrota institutua. **Begi zorrotza**


Algortan bizi den nafar honek 31 urte bete ditu irakasle lanetan. Berarentzat, pozgarria izaten da kalean ikasle ohiak agurtzea. *“Batzuk umeak dituzte dagoeneko. Are gehiago, bada institutuan bertan seme-alabak dituenik. Beste batzuk, berriz, irakasle izan dira hemen”*. Urte asko dira lanbidean; urte asko ikasleak ezagutzen. Gelara lehen aldiz sartu eta ikasleen nortasuna asmatzea “ezinbestekotzat” jotzen du; gainera, gutxitan erratzen dela aldarrikatzen du. *“Salbuespenak egoten dira, baina normalean asmatu egiten da”*.

Eta erraza al da ikasle guttien izenak ikastea? *“Nik zera esaten diet: zuek etxeko lanak dituzue”,* (off the record, gehiegitxo dituztela ere esan digu), *“eta nik ere bai: izenak ikastea”*. Karmelek ahaleginak egiten ditu aste bitan guztienak jakin akal izateko.

Azterketa zuzentzeari lanaren alderdirik txarrena deritzo, *“estresa izaten dut eta, gainera, nabiko aspergarria da”*. Onartzen du, hala ere, lantzean behin ikasleek idazten dituzten xelebkeriekin barre egiteko aukera izaten dela. Ez da gutxi. ^m

“Berehala igartzen da nolakoa den ikaslea. Normalean, bete-betean asmatzen dut”






Andrés Lejona

Karibeko bizipenak iruditan


MARTA SENTIMENDUA



CARACOL BOX




GIZONA



LEO MATIZ



AMARANTA DENBORA



ARRANTZALEA



AMARANTA



KOPA HARRIA



LUCY



Andrés Lejona

Argazkilaria profesionala da Andrés Lejona getxoztarra, baina beste ezer bada, bidaiari dela azpimarratu behar dugu. Lau urte eman zituen Luxenburgon bizitzen handik zirko bat pasatu zen arte. Eurekin elkartu eta urte erdi eman zuen zirkoan erretratuak eta erreportaiak egiten. Zirkoarekin Antila Frantzesetara ailegatu zen eta han lau hilabete eman zituen Guadalupe eta Martinika irletan zehar, gero Kolonbiara abiatu zen eta zortzi urte eman zituen Cartagena de Indiasen. Duela gutxi atzera itzuli zaigu Europara. Utzi dizkigun lan hauekin Karibearen bizi izan zituen ideiak eta esperientziak azaldu nahi izan ditu. Irudiok, Museo de Arte Moderno de Cartagena, La grande Halle de la Villette (Paris) eta Museo de Arte Moderno de Bogotá-n ikusi ahal izan dira. Jatorrizko irudiak, gutxi gorabehera metro karratu bateko tamaina dute eta horiek egiteko batzuetan landare eta hegoak erabiliz aplikatu du errebeladorea. Beste batzuetan tintak baliatuz, paper lehorraren gainean irudiak egin ditu. Berarekin harremanetan jarri edo bere beste lan batzuk ikusi nahi dituenak, bere web orrialdera jo dezake. www.andreslejona.com

Euskal zinema historia arina

Zinema Euskal Herrira duela 110 urte heldu zen. Horra, **220 hitzetan**, gure zinemagintzaren historia arin bat



La fuga de Segovia filmaren errodajearen hartutako irudi bat


Zinena Ibaizabaetik gora sartu zen Euskal Herrian 1896ko abuztuaren 9an. Lehenengo zinematoografoa Bilbon paratu zuten urte hartan eta urtebete berandua go beste bat jarri zuten Donostian. Hala ere, zinemaren lehenengo urteetan oso lagun gutxi izan ziren Euskal Herrian pelikularik ikusteko aukera eduki zutenak. 1915era arte ez zen lehenengo ekoiztetxea sortu hemen; *Bilbao Film*. Pelikula bat grabatzeko lehenengo saia-kera ekoiztetxe honek egin zuen baina bere asmoak hutsean geratu ziren. Gure artean grabatutako lehenengo filmak *Hispania Film* produktorak egin zituen, baina, bitarteko eskasia zela eta, gure zinea oro har kaxkarra zen. Gudak ere ez zuen bat ere lagundu; egoera txarra zen eta zentsura eta diru arazoak zirela-eta, zinea egiteko gogoak desagertu ziren.

60ko hamarkadan euskal zineak bultzakada handia jaso zuen Gotzon Elortzaren eskutik. Zuzendari honek zentsura saihestu zuten film labur eta

dokumental batzuk egin zituen euskaraz; *Ereagatik Matxixakora*, *Aberia y Erburua*, *Gernika*... 1964an *Frontera Films* ekoiztetxea sortu zen eta 1968an *Ama Lur* pelikula ospetsua filmatu zuten. Euskal zine modernoaren lehenengo urratsak izan ziren. Baina benetako iraultza 80ko hamarkadan heldu zen;

“Lehenengo zinematoografoa Bilbon paratu zuten 1896an”

Imanol Uribek zuzendutako *La fuga de Segovia* film arrakastatsua kritikaren saria eskuratu zuen Donostiako Zinemaldian eta aro berri bati hasiera eman zion. Azkeneko urteetan, Montxo Armendariz, Alex de la Iglesia, Juanma Bajo Ulloa edo Julio Medem bezalako zuzendariak esker, euskal zineak izen handia lortu du Estatuan zein Europan. Hala ere, urrezko garaia etortzeko dago.



Goian, *Tasio* eta *Ama Lur* filmeen kartelak, Alex de la Iglesia eta Montxo Armendariz

Marilyn Monroe pornostar

Gazte denboran Marilyn Monroek egindako film pornoaren irudiak ikusi daitezke **sarean**



Filmearen fotograma batzuk

Garai guztietako mito erotikorik handienak protagonizatutako film pornografikoa 1948an grabatu zen (hilabete batzuk geroago Marilynek Marx anaien *Amor en conserva* pelikulan lan egingo zuen) zuri-beltzean eta 16 milimetrotan. Pelikulak 7 minutu irauten du, mutua da eta dagoeneko probatuta dago ez zuela inolako muntarik izan, 1965eko otsailean (Marilyn-en heriotza baino urte bat lehenago), FBI-k filmea aurkitu eta sakonki ikertu baitzuen. 1980an argazkilari suediar batek filma lortu zuen eta geroago laburmetrai honen irudiak Playboy,


Penthouse, Interviú eta beste hainbat aldizkarietan argitaratu ziren. Pelikula 1997an aurkeztu zen Vilaseca-Salouko zinemaldian eta, espero zen bezala, proiektzioak ikusmin handia sortu zuen ikusleen artean eta mundu osoko kazetariak bildu ziren Kataluniako herri honetara irudi hauek ikusi ahal izateko. Gaur egun, film labur honen fotogramarik polemikoenak, prentsan eta aldizkarietan agertu ziren argazkiak eta hainbat gauza gehiago, Interneten ikus daitezke. ^m

www.monroemovie.com

Getxoko Zinekluba

urriaren bukaeran hasiko da 02/03 denboraldia

Eta hasi oso ondo hasiko da. Izan ere, aurtengo denboraldian ikusiko den lehenengo pelikula zinemazale batek halabarrez ikusi behar duen film berri bat da: *El otro lado de la cama*. Emilio Martínez Lázaro zuzendariak ez-ohiko jenero zinematografikoa jorratu du lan honetan; komedia musikala. Gainera, orain ezagunak egin diren aktoreek osatzen dute lantaldea: Paz Vega, Natalia Verbeke, Ernesto Alterio, Guillermo Toledo, Alberto San Juan... Hitzordua hilaren 29an, asteazkena, Getxo Antzokian gaueko bederatzietan da.



Ernesto Alterio aktorea

webgida

cine.hispavista.com



Ostiraleko estreinaldiei buruzko informazio freskoa; pelikulen fotogramak, sinopsiak, bitxikeriak, datu teknikoak... Zinemara joan eta erratu nahi ez bazara bisita ezazu webgune hau.

www.afi.com



American Film Institute-ren web orrialde honetan bitxikeria ugari aurkitu daitezke; historiako maitasunezko filmik onenen zerrenda, thriller eta komediarik onenenak, biografiak...

www.movie-mistakes.com




Iparamerikar gazte batek sortua, mundu osoko ehunaka pelikulen *racord* akatsak biltzen ditu web orrialde honek. Internautek, beraien aurkitutako hankasartzeak ere bidali ditzakete.

Bide Ertzean disko berria: Maite Out



Bide Ertzean pop taldeak bere disko berria aurkeztu du azken asteotan Euskal Herriko hiru hiriburuetan, Bilbo, Iruña eta Baionan. *Maite out* izena jarri diote eta rock metrikak ageri badira ere, talde gipuzkoarra bere hasierako planetamendu melodikoetara itzuli da azken disko honetan. Lan polita.



MusicaEx Machina

Ez dakigu gauza handirik. Azaroaren 31tik abenduaren 9ra jaialdi berri honen lehenengo edizioa egingo da Bilbon, Espacio Abisal, Bilborock, Arrebato eta San Francisco CMn. Musika berriak eta arte elektronikoa protagonista nagusiak izango dira. Entzun dugunagatik oso oihartzun handia izango du.

www.musicaexmachina.com

MP3 euskaraz

Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen webgunean euskarazko kantak doan

Gaztelupeko Hotsak osatzen dugunok ez gara ez musikagintzaren funtzionario eta kulturaren saltzaile. Horregatik gara *topaleku* eta musikaren bitartez mezu aurrenazale bat luzatu nahi dugu. Horrela azaltzen dute euren burua diskoetxe honetako lagunek. 90eko hamarkadan mendi artean izkututa dagoen Sorluzen sortu zen. Gaztelupeko Hotsak, horixe dira Hotsak eta euren honezkeroko katalogo handian era

askotako soinuak topa daitezke: reggea, trasha, trikia, powerpopa, cajun... Orain arte 50etik gora disko plazaratu dituzte. Mikel Urangarin, Morau, Tapia, Ene Bada, M-n ezten... eta beste asko dira euren lanak diskoetxe honen eskutik argitaratu dituztenak.

Webgune txukuna ere badute eta bertan diskoak erosi eta informazio oparoa jaso ez ezik, doaneko kantak ere eskuratu daitezke MP3 formatoan. m



Jaitsi daitezkeen kanta batzuk

Arima Beltza > Blues oihartzuna (3 Mb)

Bide ertzean > Berriz berpiztu naiz (3 Mb)

Bide ertzean > Haize zaharrak (2 Mb)

Joseba Tapia > Arraun (1 Mb)

M-n ezten > Asetuta (2 Mb)

Mikel Urdangarin > Bar puerto (3 Mb)

Mikel Urdangarin > Haitzetan (1 Mb)

Piztiak > Abioiak zerua urratzen (3 Mb)

Su Ta Gar > Basamortuko zalduna (2 Mb)

www.hotsak.com

Kantak jaitsi ahal izateko Gaztelupeko Hotsak-ekoan webgunean sartu eta MP3 atalean klikatu.



Erradiografia



Bonzos taldeko kideak Urdulizko Txiberri tabernan eskaini duten azken kontzertuan

Nondik dator izena? *“Azalpen bi ditu; alde batetik izenak adierazi nahi du zein erasokorra den gure musika; eta, bestetik, Ramones taldearen omenez, izen horrekin abesti bat baitzeukaten”.* **Jaio ziren:** *“1995eko urrian. Hile pare bat beranduago, abenduaren 28an, gure lehenengo kontzertua eman genuen eta 1999an lan arazoak zirela-eta banatu ginen. Iaz atzera elkartu ginen”.* **Taldeko kideak:** Alvaro Heras (baxua), Alvaro Segovia (gitarra), Lorenzo (bateria) eta Juan Carlos Parlange (ahotsa eta gitarra). **Gustukoa dute:** 50eko hamarkadako rock&rola, Rolling Stones, Ramones eta gaur egungo rock

amerikarra. **Diskografia:** Disko bi dauzkate. 341 Broome Street, New Yorken grabatu zuten 1997an (diskoaren titulua egon ziren New Yorkeko hotelaren helbidea da) eta bigarrena, *Re-Action* 1998an atera zuten. Hirugarrena prestatzen dabilza. **Besteak beste jo dute:** Bilbon, Iruñean, Madrilen, Bartzelonan, Malagan... Guztira 100 kontzertu baino gehiago. **Euskal musikaren egoera:** *“Larria da. 80ko hamarkadaren bukaeran bazirudien gauzak aldatuko zirela; talde berriak atera ziren eta rock&rolaren egoera hobetu zen baina ez zen erreleborik egon. Egun lehenengo taldeek jarraitzen dute”.* m

diskoak

Lorius
Alboka
Resistencia




Alan Griffin, Juan Arriola eta Joxan Goikoetxea dira Alboka eta *Lorius* euren hirugarren diskoa. Tradiziozko kantak eta berriak uztartu dituzte lan zoragarri honetan. Horretarako Martá Sebestyén-en (oso ezaguna egin zena *El paciente inglés* musikan parte hartzeagatik) puntako abeslariaren laguntza jaso dute.

Land (1975-2002)
Patti Smith
Arista/BMG



Disko hau Patti Smith handiak bere ibilde musikal luzean onartu duen antologia bakarra da. *Land*-ek Smith-en karrera artistikoaren laburpena biltzen du nahiz eta oinarriko kanta batzuk diskoan azaldu ez. Baina berdin dio, Smith bakarra da eta ezagutzen ez baduzu haxe duzu aukera.

Nights divides the day
George Winston
BMG



Ray Manzarek, Robbie Krieger, John Densmore eta Jim Morrison, hau da, *The doors* taldea da disko honetako zeharkako protagonista. Izan ere, George Winston musikari gogoangarriak aspaldian zuen arantza kendu eta bere gogoko talde honen kanten bertsioak osatu ditu pianoan. Bikaina.

> Nire disko kutunak NIKO VAZQUEZ



NIRE HAMAR DISKO

“Ordena edozein izan daiteke”

01. Never Mind The Bollocks
SEX PISTOLS
02. Kick Out The Jams. MC5
03. Fun House. THE STOOGES
04. L.A.M.F. HEARTBREAKERS
05. Road To Ruin. THE RAMONES
06. No Te Muevas. RIP
07. Motörhead. MOTÖRHEAD
08. So long and thanks for all the shoes. NOFX
09. Rattus Novergicus
THE STRANGLERS
10. I'm stranded. THE SAINTS

* Niko Vazquez-ek MCD talde mitikoan jotzen du bajua. Argazkian, taldekoekin, bera

Elkarrizketak, denbora-pasak, ibilaldiak, umorea, erreportajeak, eta beste mila kontu, euskaraz eta astero zure etxean.

Urte beteko harpidetza

HEGO EUSKAL HERRIAN
104 €

IPAR EUSKAL HERRIAN
126 €



- Urtean 46 ale
- Larrun pentsamendu aldizkaria hilerro
- Euskal Kulturaren Urtekaria
- Dossier bereziak, mapak, gidak...
- Eskaintza bereziak

25eko beherapena

- Ikasleei
 - Euskaltegietako ikasleei (lehen urtean)
- *Beherapenaz baliatzeko, matrikula agiriaren kopia bidali behar da.

HARPIDETZA EGINEZ GERO,
OPARI HAUETAKO BAT AUKERA DEZAKEZU
(x batez markatu)

ARGIA ASTEKARIA HILABETEZ DOAN
EZAGUTZEKO AUKERA ERE ESKAINTZEN DIZUGU



HARPIDETZA ORRIA

- Bai, ARGIA hilabetez doan jaso nahi dut
 Bai, harpidedun izan nahi dut

Izen deiturak:
Helbidea:
Posta kodea: Herria:
Tel./Faxa: e-posta:
N.A./I.F.K.: Jaioteguna:

Ordainketa mota (markatu x batez):
(Bankuz ordaintzekoak betetzeko soilik) Bankuz Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA)

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.

Titularraren telefonoa: Titularraren helbidea:

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

DATA:

SINADURA:

Internetez www.argia.com orrian eskaera egin dezakezu

ARGIA • 142 P.K. • 20160 Lasarte-Oria • Tel.:943371545 • Faxa 943361048 • e-posta: harpide@argia.com

[irakurgaiak]

esaterik badut

Esti Ezkerra

Zola hil zela ehun urte bete direnean

Mundua inoiz baino okerrago dabil, halaxe da tamalez. Ertzainek defendatu behar luketen herria jipoitzen dute, Johannesburgoko goi-bilerak akordioak lortzeko agintarien ezintasuna utzi du agerian, Bush cowboy-ak sarraskiak eta gerrak besterik ez ditu gogoan eta zeregin horiek aurrera eramateko bidaide ezin hobea aurkitu du Blair laboristarengan. Bien bitartean, komunikabideek Aznarren alabaren ezkontza lau haizetara zabaldu dute, jadanik urteko gertakariarik esanguratsuen delako aipatzen hasi dira batzuk. Sinestezina. Emile Zola hil zela ehun urte bete dira aurten, eta bati halako korapiloa hazten zaio barruan hark bere garaian salatu zituen bidegabekieretatik gehienek gaur egun bere horretan jarraitzen dutela ikusita. Behintzat, bizitza kalitatea hobetu dela esan dezake norbaitek; bai, batzuentzat hala gertatu da. Baina Afrikan umeez gosez hiltzen jarraitzen duten bitartean, horrelako argudioak

erabiltzea bekatu larria da. Dena den, ez dezagun hau sermoi bihurtu, eta goazen Zolarengana. Edozein entziklopedia hartu eta bere izena naturalismoari loturik agertuko zaigu, azken finean bera izan zen korronte hura sortu eta egiazki bete zuen bakarra. Egon dira naturalismoaren zaku horretan sartu nahi izan duten idazleak, baina inor ez zen Zolaren mailara iritsi. Gizakien grinak ziren modukoak islatzea helburu, idazle frantsesak garaiako nobela hunkigarrietako batzuk idatzi zituen, hala nola *Therese Raquin* edo *Germinal*, Frantzia hegoaldeko meatzarien bizi baldintza kaxkarren berri ematen duen eleberria. Hain zuzen, *Germinal*-ek ordura arte hitzik eta botorik gabe zeuden meatzarietako borrokan jarraitzeko argudioak eman zizkien. Zola hil zenean, meatzariak krabelin gorriak eskuan eta "Germinal, Germinal!" oihuen artean joan ziren idazlearen hilkutzaren atzetan. Gaur egun horrelako zerbait gertatzea ezinezkoa iruditzen zait.

liburuak



Xake mate
Alberto Ladron
Elkar

Augustin Zubikarai Saria eskuratu du nobela labur baina indartsu honek. II. Mundu Gerraren ostean kokatua, gurpil-aulki batean dabilen mutiko bakarti baten bizpenak.



Anpurek
Ozkar Galán
Artezblai

Antzerkigile ipurtarin honek Bermeoko hizkera jarri du bere pertsonaien ahotan, izan ere, hantxe antzezteko testua baita *Anpurek*. Zer dira anpurek? Bermeano-z lebatzaren tripiakiak.



Aizak eta aizan...
Anjel Lertxundi
Elkar

Idazle handiak antzerkiaren onurak gogorarazi nahi dizkigu haurrengan pentsaturik osatu duen liburu honekin. Bertan, gure altxorreko hainbat pieza, egitura tradizionalak imitatuz sorturikoak...



Idi orgaren karranka
Victor Hugo
Elkar

Idazlearen jaiotzaren bigarren mendeurena betetzen den urte honetan, Elkar-ek euskaraz eskaintzen dizkigu idazle handiak gure herri txiki honi buruz idatzitako testu zintzoak.

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO


I aki Bitxitegia

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta


VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA


webgida



JOKU-ELEKTRONIKOAK



Testuak: Iker Merchán / iker@merchan.com



Antzinako hotsak

Hainbat erabiltzaile dabilta **oraindik** ordenadorerako jolas zaharrekin

Hamarkada bakarrea ordenadoreak 12 megahertzio izatetik 2.000 izatera pasatu dira. Kontuan izan zer-nolako malabarismoak egin behar zituzten garai hartako programadoreak joko dibertigarriak sortzeko. Eta askok uste dute eguneko grafiko eta soinuek une hartako imajinarioarekin ezin dutela borrokatu. Horregatik, oraindik Tetris edo Arkanoid joko zahar baino adiktiboekin galtzen dituzte orduak.

Dozenaka webgune sortu dira programa hauek batzeko eta banatzeko. Horri *abandonware* deitzen zaio, eta berez legez kanpo egon arren (azken finean pirateria mota da eta) gehienetan programen sortzaileak ez dituzte arazoak jartzen dohaineko banaketa hau baimentzeko jolas horien bizi komertziala orain dela urte asko amaitu baitzen. Baina, Interneten antzinako programak aur-

kitu ez ezik gure ordenadore berri eta boteretsua zaharkitzeko moduak ere (emuladoreak, alegia) jaso ditzakegu. Zertarako? Bada, garaian puripurian zeuden sistemak gogora ekartzeko. Megahertzioz beteriko puntako Pentium IV berriak Spectrum, Atari, Amiga edo MSX baten lana egin dezake. Horrela, teklatu aurrean jarri, eta ordenadorean metamorfosi galanta ikusiko duzu.

Hau lortzeko hainbat programadorek hamai-ka ordu eman dituzte sistema horien azkeneko detaileak ere imitatzeko. Hau lan itzela da, zeren eta sistema zaharrak eta gaur egunekoak guztiz ezberdinak dira. Garai hartan ordenadorekin ibili bazinen, nahitaez probatu behar dituzu, eta bizi ez bazenituen, ez al duzu jakinminik? m

<http://www.flashback-aw.net/>
<http://www.emugenerations.com/>

Zer ote da? Java

Edozein ordenadoretan dabilen programatzeko hizkuntza

Batzuek diote Java-k "just another vague acronym" esan nahi duela, hau da "beste esanahi ez duten siglak". Dena dela, Java ez da oraindik bilakatu aurreikusten zuten iraultza, baina Internetarako hainbat zerbitzutarako erabiltzen da. Nolako da Java? Motela eta astuna, baina horren truke edozein sistemaren gainean (baita garbigailu batean ere) ondo ibil daitekeen sistema sendoa dugu.

Hainbat Internet zerbitzu Javaren erabiltzaile dira, lan bakarra eginez ordenadore erabiltzaile guztietara heltzeko modua baita. Berez egindako programa bat instalatu behar dugu etxeko ordenadorean, baina arrunta zen aurretik instalatuta izatea. Arazoa azkenaldian agertu da, zeren eta sistema honen sortzailea Sun dugu, Microsoft-en areririk handiena. Bill Gates-en azkeneko sistema eragileak (Windows XP) Javaren erabilera galerazten du. Horrela, Interneteko hainbat baliabide erabili ezinik geratu dira erabiltzaile askorentzat. Zer gertatuko da Javarekin? Batek daki, baina, gaur egun, hobe ordenadorean instalatuta badugu.


Informazio gehiago: <http://java.sun.com>

aurkitudugu

Jacson-en eboluzioa



Titanic



Interneten irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hilabetero argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ETA AURRERANTZEAN
ordenagailuen zerbitzu teknikoa

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

☎ 94 676 00 62 - Fax: 94 676

BILBO MICRO



“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoa: 4230213

Testuak eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

MUNDUKO BAZTERRAK ARGENTINAKO PATAGONIA

Perito Moreno



Planetan zehar UNESCO-k gizateriaren ondare izendatutako hainbat hiri, paisaia eta fenomeno natural topa dezakegu. Bakoitzak bere ezaugarri eta xarma propioak ditu, baina gutxi dira 22.000 km. karratu betetzen dituzten 47 glaziarriak bezain ederrak. Hauek Andeetako gainetatik behera astiro-astiro jaisten dira haranak eta larreak zeharkatuz. Naturaren bitixi hau Amerikako hegoaldean, Argentinako Patagonian dago.

Lur eremu erraldoi hau XIX. mendean kolonizatu zuten eta beste hainbat lekutan bezala, europarrek bertako tribuak sarraskitu zituzten. Martxoan, artean uda australa gozatzen, Buenos Aireseko Panamericana hirugarren karriletik noala, Argentinako zoramaren automobilistikoaren adibide garbia den taxista baten atzetik eta laster aterako den hegazkina hartzeko aireportura garaiz heldu nahian, nire mapa eta gogoa Andeetako glaziarrik ospetsuenean daude: Perito Moreno. Ordu batzuk geroago, lehen aipatutako taxistak egin lezakeen lur hartze beldurgarriaren ondoren, bizirik heldu naiz Calafatera, biharamuneko txangoa egin aurretik ostatua hartu dudana herrixka gozoa.

Lago *Argentino*-ra heldu eta harrizten nauen lehengo gauza bere uren distira zehazgaitza da, glaziarren morrenak eka-



Perito Moreno glaziarra deigarria da bere tamainagatik, 35 km-ko luzera eta 60 m-ko garaiera du

rritako sedimentuen eraginak sortzen duena. Baina begirada altxatzean sorpresa mi-respen bihurtzen da: 35 km-ko luzera eta 60 m-ko garaiera duen masa zuri-erraldoia Andeetako larreetatik behera dator eta lakuan hiltzera doa pareko lakuaren bazterrean heldu nahian. Glaziarretik, irla flotagarri erraldoien modura, masa izoztu handitik banatu eta gero abiatzen dira izebergak.

“Glaziarren oinetatik izebergak askatzen dira”

Untzi txiki batean munstro izugarria hurbiltzen naiz. Lantzean behin, lakura eroritakoan orro egiten duten izotz askatze ikaragarriak gertatzen dira eta gero lakuko urak dardarka hasten dira.



Naturaren bitxia

Perito Moreno glaziarra eta lakuaren pareko ertzearen arteko distantzia txikiena 20 m-koa da. Glaziarren burua hara ailegatzen denean, bitan banatuko du lakua eta behe- ra datorren urari bidea itxiko dio. Glaziar- rakk alde batetik 20 m-tik gora altzarazi-



ko ditu urak eta eta bere presio itzelezkoak dike erraldoi izoztua lehertaraziko du, izotz zatiak airetik barreiatuz. Kataklistimo hau 80 km-ra dagoen Calafaten ere entzungo da, bertakoek une horiek naturak eskaintzen dituen ikusgarri eta hunkigarrienak direla diote. Eta aldi berean arriskutsuenak. Izan ere, izotz zati zorroztuak sarritan bisitarien- gana ailegatzen baitira eta aiztoak bailiran euren gorputzak zulatzen dituzte.

“22.000 km² betetzen dituzten 47 glaziarrik ederrak dira”

Ni ez naute proiektu arriskutsuek zauritu baina, nahiz eta ikusten ditudan izotz askatzeak ikaragarriak izan, erraza da ulertzea aipatutako fenomenoak ikuskizun bikaina izan behar duela. ^m

Perito Moreno

- **Non:** Patagoniako Andeetan
- **Herialdea:** Argentina.
- **Herri hurbilena:** Calafate.
- **Zelan heldu:** Hegazkinez, Buenos Aires Rio Gallegosera, gero autobusa Calafatera. Handik glaziarretara txangoak egin daitezke.

Informazio gehiago:

- www.patagonia-argentina.com/e/andina/glaciares/perito.htm
- www.interhabit.com/site/LocArgentina/PeritoMoreno/glaciares.asp
- www.rionegro.com.ar/turismo/perito.html

HURBILEKO BAZTERRAK

Bilboko ibaiaren sorlekua



Nerbioi haitzartea jeneralean lehor egoten da

Euskal Herria eta Burgos banatzen duen lerro imaginarioaren alboan, Urduñatik kilometro gutxira ehun metro- tik gorako urjauzi batek Bilboko ibaiaren sorlekua seinatzen du, Bizkaiko hiriburuaren sinboloa. Apur bat aurrerago Delika, Urduña, Amurrio zeharkatzen ditu ibaiak eta gero bere bidea jarraitzen du Bilboraino, Abran hil arte.

Tamalez, sarritan urjauzia lehor egoten da, baina hala ere bistak paregabeak dira. Gure botapetan, sakontasun handian, Nerbioi haitzartek atsedena hartzen du, urteen poderioz errekek higatua. Gainean grabitateari erronka eginez behatoki bat zintzilik dago, handik lur zabalak ikusten dira arranoak gure buruen gainetik hegan daudelarik.



Leku honetara heltzeko bideetako bat Unza herritik abiatzen dena da, Ordubetz aldapan gora –biguna– ibili behar da. Inork gehiago ibili nahi badu, badu nora joan: Alto del Corral mendia, Txarlazo (hantxe dago Birjina ospetsua) edo Txolopera. ^m

Zelan heldu

- Bilbo-Burgos autobia.
- Urduñan, Gasteizerako norabidea.
- 7 km.ra eskuinera Unzarako bidea.
- Herria zeharkatu hegoaldera, errepideak hesi baten alboan jarraitzen du, km. 1. Han hasiko dugu bidea.



Eskolatik plazara

Bertso eskola batera parajetzen den euskaldun baten buruan hainbat aburu eta horrenbeste helburu egon daiteke. Euretarioko bat, hurrean, noizbait plazan kantatzea izan liteke. Zorionez gaur egun Algortako Bertsolari Eskolan gazte talde polita dabil han-hemengo plazetan kantari. Eskolako gaztetxoak ere probatuta daude plazako bertsozaleen txalo hots zirraratsua.

Testuak: ALBE / Argazkiak: Andoni Crespo Astobiza - ALBE

Helburuak helburu

Ondo pasatzea, lagunak egitea, euskal giroan ibiltzea eta euskara lantzea izan daitezke, besterik gabe, bertso eskolara hurreratzeko denaren helburuetako batzuk. Bertso teknika ezagutzea, bertsolaritzan sakontzea eta bertsolarien berri izatea ere egon daitezke eskolaratzen den horren helburuen artean. Baina bada beste helburu bat, lan, ardura eta borondate handiagoa eskatzen duena: plazara irten eta bat-batean kantatzea. Bertsolaria izatea –gure ustez, behintzat– helbururik gorena litzateke helburuen zerrenda hirretan. Helburu hori, baina, bakan batzuek baino ez dute lortzen.

Plazan bat-batean kantatze horrek komerriak ditu, lan asko egin behar baitira batera: zeresana pentsatzea, esan beharreko hori azken puntu bihurtzea, erriak bilatu eta kantatzen hastea. Gainerako osatze lana kantatu bitartean egin behar da, bat-batean, alegia.



Behean ezkerrean, Ekaitz Larrazabal «Katxo»-ren bernazakiak. Goian erdian, Josu Landetaren besoa eta mokorra. Behean eskuinean, Josu Landetaren oinak.

Gure eskolako inprobisatzaileak

Algortako Bertsolari Eskola ezergatik harrotu badaiteke, bat-bateko eskola izateaz egon daiteke harro. Izan ere, eskolan egiten den lan guztia bat-batean kantatzeari begira egiten da (hau pentsaezina izango zen orain dela 22 urte, eskola sortu zenean). Kontua da gaur egun eskolan dabilzan gehien-gehienak bat-batean kantatzeko gai direla, batzuk sano maila ona erakutsiz, gainera. Gaztetxoak ere helburu horretarakin ari gara trebatzen eta, dabilzan bidetik segituz gero, laster ditugu plazetan kantari.

Erdi bertsoen abenturara

Oholtza bat. Gainean mikro bat. Hari begira bertsolaria. Aurrean entzuleak... Nahiko mekanismo sinpleko jarduera da bertsolaria. Hale ere, burmuinaren barruan gertatzen den abentura benetan kitzikagarria dugu. Bertsolariak, normalean, badaki bere bertsoa zelan amaituko den, baina ez daki azken punturainoko bide horretan zer gertatuko zaion. Batetik, buruaren arriskua dago: nahiko zeresan sortuko ote den bertsoa betetzeko, erriak egoki sartuko ote diren diskurtsoan, euskal esaldi gramatikoki zuzenak sortuko ote diren, nahikoa koherentsia, koherentsia eta indar izango ote duen bertsoak... Bestetik, urdailaren arriskua dago: nerbioen erasoak bertsoa osatuz kantatzeko eta kantatuz osatzeko behar den patxada zapuztuko ote digun. Azkenik, komunikazioaren efektua dator (doblea edo ezer ez). Entzulearekiko komunikazio onik lortzen ez denean, hoztasuna dator, kortesiazko txalo hutsak. Norberaren kamustasuna okospean ezkatatu beharra. Baina entzulearekiko komunikazioa lortzen denean, klimaxa dator, erabateko barnepoz atsegina. Erdi eskolara eta dastatu. Urriko lehenengo asteartetik gabiltza martxan (asteartero batzen gara Algortan, Karitate kaleko 1. zenbakian dugun egoitzan, 20:00etatik 22:00etara). Ipinia oinarria zeure gogoari. m



Iturria: XDZ / Argazkia: Jagoba Manterola



Solaskidearen SOSLAIA

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Iratxe Ibarra bertsolaria hobeto ezagutuko duzu.

- 1) **Shaskaren egutegiko zein egunetan bete ditu edo beteko ditu Iratxek 28 urte aurten?**
 - a) Iratxeren egunean (Maiatzak 31)
 - b) Itoizen egunean (Abenduak 10)
- 2) **Non jaio zen Iratxe Ibarra?**
 - a) Markinan
 - b) Durangon
- 3) **Zein ikasketa egin du Iratxek?**
 - a) Euskal Filologia
 - b) Turismoa
- 4) **Non dabil lanean gaur egun?**
 - a) UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean)
 - b) Euskaldunon Egunkarian
- 5) **Zein da, bertsolaritzaz gain, Iratxeren zaletasunik handiena?**
 - a) Pilota
 - b) Xakea
- 6) **Zein izan ziren Iratxeren lehenengo maisuak?**
 - a) Baraiazarra eta Lopategi
 - b) Altzalei eta Amuriza
- 7) **Nongo bertso eskolatan dabil egun Iratxe eskolak ematen?**
 - a) Markinako bertso eskolan
 - b) Santutxuko bertso eskolan

10ekotxikian Iratxe Ibarra

- 1) Markina aldeko bizkaierak, bizkaierarik onenaren ospea euki eban antxina. Gaur egun be...? Lehen euki eban bai ospe hori, baina uste dot kalidatez dezente galdauela. Egin asko egiten da euskeraz Markinan, baina zaharrek eta baserritarrek gordetan dabe lehengo euskerea, eta guk gazteok asko galdu dogu.
- 2) Bizkaiko Txapelketea dator. Zein asmo? Ez dakit ba. Lehengoari eustea nahikoa izango da. Aurten behintzat bizkaieraz egingo dot, eta niretzako nahiko arrisku da hori.
- 3) Igor Elortzaren eta Unai Iturriagaren promozinokoa zara. Euren taldekide sentitzen zara, ala zeure bidetik zabilta? Euren taldekide sentitzen naz; bertsoan plazaz plaza batera samar hasi ginan, eta ganera, sasoi baten neu be eurekin ibiltzen nintzan entrenetan, 16-17 urteaz. Eta Kanpantxukadetan be alkarregaz egoten ginan.
- 4) Zelan ikusten dozu Bizkaiko bertso panoramea? Gure sasoiok eta apur bat gazteagoak (20-25 urte ingurukoak) fuer ikusten dodaz, hor badago kalidatea. Baina gaztetxoetan etena somatzen dot; eskolarteko txapelketetan egon izan naz, eta Gipuzkoa eta Iparraldekoak gogorrago datoz.
- 5) Osatu bertsolari gazteen 8kote bat Euskal Herria ordezkatzeko mundu mailan. Segun gazteak ze edadekoei deitzen deusagun. Nire edade ingurukoak sartuta: Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Irazu, Aitor Mendiluze, Amets Arzallus eta Sustrai Colina.
- 6) Zelan ikusten dozu zeure burua plazan kantatzen diharduzunean? Hasieran baino askoz be trankilago. Ez dot lehengo larritasunik sentitzen; bueno, txapelketetan bai.
- 7) Zebateraino bizi zaitu gaur egun bertsozintzeak? Boladak izaten dira. Txapelketa sasoiaren ordu gehiago emoten dodaz mundu horretan, baina txapelketa ostean deskonektatzeko gogoia be eukiten dot. Dana dala ez dot neure burua bertsoari total emonda ikusten, besteak beste afizino gehiago be badodazalako: pelotea...
- 8) Sinesten al dozu bertso eskolen geroan? Bai, jakina. Azkenaldiko bertsolari gehienak bertso-eskolen fruituak dira, eta aurrerantzean be holan izango dala uste dot. Ganera, gai-jartzaileak, aurkezleak eta zaleak be eskoletatik urtengo dira eta gehiago.
- 9) Osatu bertso bertsoan esango dot / zelangoa nazan... gustora kantetan dot / tabernan ta plazan, / ta zelan afizino / ugari dodazan, / zortziko txiki baten / danak ezin esan.
- 10) Botaiezu koplaxu bat Algortako bertso eskolan dabilzan neskatoei, asko dira eta. Zuek bapo gozatu / berba ta kantua,

“ALBE bat-bateko bertso eskola dugu eta bertako ikasle gehienak plazan kantatzeko moduan daude”

BEGI-BELARRI

Zerbezaren azokan bertsoan

Edozein ekitaldi, jai, zein ospakizun izan daiteke bertsoan egiteko aitzakia. Halandaze, Getxoko Nazioarteko I. Garagardo Azokak eszenatoki egokia dirudi bertso lanerako. Bertsoak entzutea, garagarraren zuku hartitua dastatu bitartean. Horixe izan zen irailaren 10ean Getxo Rugby Taldeak, Getxoko Futbol Taldeak eta Algortako Bertsolari Eskolak auzolanean eta Algortako Portu Zaharrean okasiorako beren beregi ezarritako karpapean eskaini zuten plan kilikagarria. ALBEko bertsolariek saio bizi, on eta alaia egin zuten, garagardozeak entzule zituztela. Errepikatzeko moduko "entsegua".

Testuak: **ALBE** / Argazkiak: **Andoni Crespo Astobiza - ALBE**



Irria ahoan, pitxarra eskuan, ALBEko selekzioa badabil munduan.



Pello Etxebarria bertso bat mikrofonoraten.



Jagoba Pereda, Ekaitz Larrazabalen bertso lagun hurkoena.



Ekaitz Larrazabal, Jagoba Peredaren bertso lagun hurkoena.



Miren Loizagak, Ekaitz Larrazabal «Katxo»k eta Josu Landetak bizi eta umoretsu jardun zuten puntuka saioaren amaiera aldera.

"Baina halaxen ere, axolik ez zidan, musu ematen nion heldu bakoitzean, ai, ai, ai, ai..."

Doinu alai eta lelodun hau aukeratu izanak asko girotu zuen entzuleria, bertso bakoitzaren ostean jendeak errepika hori kantatzen baitzuen.



Josu Landeta bertso kantuan.




Andere Arriolabengoa gaia jartzen eskolako laukoteari.

ALBEko bertsolariak entzule aktibo.

Mahaian ere, maila eman zuten bertso eskolako kideek, bertsoan egin eta kantatu ez ezik, garagardoa edan eta saltxitxetatik zein ukondotik politto jan zuten eta.

Lerroetatik eskerrik beroenak Getxo Rugby Taldeari eta Getxoko Futbol Taldeari, ondo baino hobeto hartu baikintuzten.

Hurrengorik egongo bada, ez da bertsorik faltako.



Bertsojartzailea: **Josu Arroyo**
Gaia: **Garagardoaren festa**
Doinua: **Aita izena kanta beharrak**
Neuria: **Hamarreko handia**

1
ALBEkideok oso gustura gaso genuen gonbita, Portu Zaharrak hartu gintuen Munich itxuran jantzita. Saltxitxa eta pitxer artean hura bai koadro polita! Bertsolariak artisten pare barra ondoan jarrita, bertso ederrak atera ziren garagardoaz bustita. (bir)

2
Giro beroa karpapekoa gutxi zeuden kopetilun, horren moduko ikuskizunak urri baitira gaur egun. Kontu hauetan Alemanian ba omen dira jakitun, baina bertoko nobedadea ziur ez dutela entzun, Euskal Herrian garagardoa dugu bertsoaren lagun. (bir)

3
Euskal-aleman festa handia bide bitxia izanik, rugbyak eta futbolak Getxon bat egin zuten azkenik. Euskal Herrian ez omen dago horretarako kemenik, giroa bero dugun honetan baikor izan nahi nuke nik, sasoi hobeak helduko dira ez galdu itxaropenik!

Kontxi Unanue

Oraingo honetan, Kontxi Unanuekin egon gara berbetan. Kontxi Berangon jaio zen 1926 urtean. Gazte zenean, bertoko egoera zela eta, Parisera joan behar izan zuen behar egitera. Han sei urte eta erdi eman ostean, etxera itzuli eta geroztik hemen bizi da. Hauek dira kontu horien eta beste zenbaiten inguruan konta dizkigunak.

Testua: Urtzi Iglesias
Erretratua: Asier Mentxaka

—Berangon jaio zinen, ezta Kontxi? Noiz?

—Bai, bai. Ni emen yaiota nas, emengo nas; emen baserrin es, atzeroko baserri baten. Gero etor gintzen ona. Nire seme alabak pere emen yaio siren, ta amen bixi gare, lasai lasai. Ogetaseien pentsaten dot; bai, dekot... irurogetamasei urte dekoas.

—Etxe honen izena “Kantiñe” da, badakizu zergatik duen izen hori?

—Bai, “Kantiñe” ixena deko; bai, au da “Kantiñe”. Es dakit, es nas gogoratzen se urte asko dekos, nik es dakit sergatik dekon ori ixena; bardiñ ixango san kantiñaran bat. Esaten dotze bere “Lokategi”, baia au es da “Lokategi”. “Lokategi” ixan san orko atzeko beste baserri bet baia au beti ixen da “Kantiñe”.

—Gaztetan Parisera joan zinen behar egitera, ezta?

—Bai, Parisen egon nintzen; sei urte terdi ein nendusen an lanen. Gastetan, ondiño eskondu baño lelau, es dakit senbat urte, bai ogetabost urte, ogetasei edo alan yon nintzen. Etze baten, egon nintzen an kosinera, Panplonako beste neska bateas bere, ta an ein gendusen sei urte terdi bearren. Emen es san les eon biximodurik, eta gu saspí nebarreba ixen gintzesen, eta ordun urte tzarrak ixan siren eta emen bere es san egon lan egiteko serik; ta yon gintzesen Parisera.

—Nolakoa zen bizimodua Parisen?

—Ordun bere gerra asko ixen san baia beste gausa bat ixan san. Emetiko asko egon san an lanen ordun, e? Ta auki gendun sentro bat an. Yoten gintzesen danak ara sentrorra egune pasten, domekatan ta alan, ta ondo.

Lendakaries bere asko egoten gintzesen, esilion egon san ta. Ajuriagerra, Landaburu... ta orrek danak an egon siren ta gu egoten gintzesen eurokas. Paraten gintzesen danak abestuten ta negarrak urteteiotzon.

—Eta frantsesez berba egiten zenuen?

—Apur bet yakin nendun baia orrenbeste urte... ulertzen dot apur bet baia alan berba es; astu iten da.

bear lan, baia osten ondo.

—Non ezagutu zenuen senarra?

—Senarra emen; da Getzoko, Etzebarriko; an biden kontrán daun baserri bet, oiñ konpondute dau; ta ango ixan da bai. Gero eskondu sanen ona etor san nias bisten, baie osten da Getzoko. Esetu gendusen gastetarik, gero pasa siren urtek eta ostabere ikusi gintzen ta ala.

“Parisen auki gendun sentro bat; ta lendakaries asko egoten gintzesen, esilion egon san ta”

—Eta Parisen sei urte eman eta gero, etxera etorri zinen?

—Gero etor nintzen bueltan ta amen lotu nintzen. Eskondu nintzen bere, ta amen. Bueno, emen bere ein dot bear nik, emeko eskolatan garbituten... osten, etzen, baserrin auki gendusen baserriko gausak eroten eta olan. Gero kendu gendun baserriko ganadu dana (baiek eta auki gendusen, sei edo saspí; eta idik pere, gure aita bixi sanen auki gendusen idik probatako)... eta ya bakixu, esin du bearrik ein... ya sartxuk gare ta. Oin des-

—Etxean zenituzten idiekin probetan ibiltzen zen aita?

—Bai, bai. Buff! Probalari ixen san eta bertzolari bere. Selau bertzolari! Oingo bertzolari es dire lingo bertzolari modukok, pentza beres! Beste gausa bateas eiteuen bertzo. Niri asko gustaten dat, seitik bera ibil ixen san les. Es daukie ori gausatxu. Ademas gure aita, bueno gerra baio lelau bere bai, baie gerra osten yoten sen eta bildurreas. Gastek pere eiten daude ondo polito. Emen bertzolari asko eon san; eta danak paraten

“Berangon bertzolari asko eon san; danak paraten siren ta yoten, yaie eoten san lekure”

kantza. Ya lo creo! Se urte tzarrak auki dus emen gerran osten. Bueno, guk es du... gose asko pasa da baio guk es orrenbeste, se guk auki gendusen les baserri ta ori gausak, indabak... baia beste batzuk pasa daude, bueno! Guk pere, es pentsa; ogi barik eta! Ooi ene! Emen oiñ bixi sare de primera kategoria; baie len ixen siren... gerra osten ixan san ori. Gu saspí ixan gintzesen, ta saspí umeas, ta aita yon san orti, gerra osten eskapa iñ bear ta yon sen iru urte. Ta guk in

siren ta yoten siren erromerittera, yaie eoten san lekure, ara yoten siren bertzotan. Len ixeten siren erromeri polittek; danak batuten gintzesen erromeritten, danak ondo.

Eta umeri Santageda ta dana eiteotzen irakatzi aita, etorten siren ona emeko barrioko mutillek eta: “ala Pedrin, ikasi in bear du ba Santageda ta?”. Baie se polite, selau bertzok! Yoten siren baserittera, eta baserritten ba neska gastek, eta neska gasteri intenotzen bertzo. m

Gure berbakere 14 GURE? AZENTU

Testua: Xabi Bilbao

Euskal Herriko beste leku batzuetik datorren euskeldune laster konturetuten da gure berbakeran “beste modu bateko” azentu dekule, hau da, berban ganen azentuk non (ze silabatan) iminten doguzen nahiko gauza barri iten dako.

Kasu baterako, **lagunék iñ dau** hori esango dogu guk (“*lagúnak* egin du” esan beharren leku askotan esaten dan lez). Edo **lagun baték iñ dau** esango dogu, “lagunbaték” dana segidun esanta berba bat lez, “lagun” berbak azenturik eztecola, baia bai atzen datorren “baték” horrek (ostera, kasu baterako, euskera batuan “*lagún baték* egin du” entzuten da, “lagún” eta “baték” berba bietan azentu imifite).

Zer da hau dana? Zelan manejatzen dau azentu gure berbakerak? Gaurtik hasite, apurke-apurke ikusiko doguz azentuko kontu batzuk zelan direzen gure berbakeran.

Hasteko, gauza bat jakin ber dogu: Zetan iyerriten (igartzen) dan azentu non -ze silabatan- paraten dan. Gure berbakeran inportantzi handi dauke horretarako berbakaz eta silabakaz batera doazen tonu altuk eta bajuk (musikeko tonuk edo notak lez): berba normal baten, lehelengo silabek tonu baju eroten dau eta gariko duztik tonu altu. Kasu baterako, **la-gu-nék** berbako silabak *baju-altu-altu* tonukez esaten dire. Eta zelan dakiu silaba azentudune hirugarrena (-nék) dala, eta ez bigarrena (-gu-), silaba biek tonu altu badauke? Ba, señale bi dekuz hori yakiteko: bat, tonu altun arten, azentu dekon silabana aputxu bet altuau ixeten dalako bestek baño, eta bi, azentu daron silaban osten tonuk baja iten dauleko, hau da, azentu osteko silabek tonu baju eroten dau beti.

Entzuizue adi-adi gure aitzitxe edo amama baten berbakere, eta erraz barruntako dozue zelan dabillen tonukez gora ta bera, kasik kantaten lez. Kasu baterako, **lagunék iñ dau** hori esakunen (edo antzeko baten) *mi-fa-fa#-si-do-do#-re* moduko zoezer entzungo dozue.

Hemen itxiko du kontu hau gaurkoz, baia adi egon! Ondiño asko dau yakiteko ta.



Erretratuan, Kontxi Unanue

Euskara ikasi dute

Klaudia Gartzia (Erromo)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?

—Hau nire laugarren ikasturtea izango da.

—Zein mailatan zaude?

—Orain, zortzigarren urratsean.

—Non ikasten duzu?

—Urtebete egon nintzen

Algortako AEK-ko *Lauaxeta*

euskaltegian. Azkenekoetan,

Erromon izan naiz, *Ganbara*-n.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?

—Alde batetik, lanagatik,

beharrezkoa da eta. Bestetik,

euskara ikastea garrantzitsua dela pentsatzen dudalako.

—Zer da gehien kostatzen zaizuna?

—Aditzak, batez ere aditzak.

Ez dakit zer-nori-nork, ahalera eta beste gauza batzuk.

—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?

—Bai, baina gustatuko litzaidake

gehiago erabiltzea. Nire euskara

maila ez da oso ona, eta euskaldun

zaharren aurrean lotsatu egiten

naiz batzuetan, berez lotasagabea naizen arren.

—Zelan definituko zenuke euskara?

—Izpiritu bat legez. Sentimendu

bat da, eta horregatik ari naiz

ikasten. Euskaraz hitz egitea,

ikastea... norberaren barne-

barnean dagoen zerbait da. m

Iritzia

Sopela ala Sopelana? Gai honi buruz argitaratu genuen artikuluak hautsak harrotu zituen. Argi apur bat gehiago ekartzeko Mikel Gorrotxategik, Euskaltzandiako Onomastika Saileko Arduradunak bere iritzia azaltzen du lerrootan.

Sopeloztarrak sopelanatarrak badira

Mikel Gorrotxategi

Sopela dugu Bizkaian izena euskaraz ez duen udal bakanetako bat, dagoeneko bakarra ez bada. Argi dago Sopelana izena euskaratik ere badatorrela, baina aurreko egunetan aipatu dudana bezala erabat arkaikoa da, euskaldunek aspaldi aldatu baitzuten izena Sopela bihurtuz. Zergatik aldaketa hau? Euskal fonetikaren lege batek eragin zuen aldaketa. Lege horren arabera “N” bokalen artean dagoenean desagertu egiten da, bikoitza ez bada behintzat —”NN”—. Lege hau hiztegi arruntetan zein leku-izenetan, eta euskal hitzetan zein beste hitzetatik hartutakoetan betetzen da. Hiztegi arruntetan hor ditugu gazta eta ardoa, antzina *gaztana* eta *ardano* zirenak, edo latinetik hartutako *harea* eta *karea*, gaztelaniaz “N” ondo gorde dutenak. Leku-izenetan zerrenda amaigabea denez adibide batzuk jarriko dizkizuet. Nafarroan: Dorrao, Artaxoa, Udaitz; Araban: Miñao, Argomaiz eta Subilla (Subijana); Gipuzkoan hor ditugu Lazkao eta Zestoa, eta Bizkaian nahi beste: Lemoa, Lemoiz... Gorago esan bezala badira desagertzen ez dituen “N”ak, Olano edo Eneko, esaterako, latinean bezala bi “N” mota zeudelako.

Sopelana izenaren alde dauden argudioetako bat izen horren antzinatasuna da, hori baita dokumentatzen den lehenengoa, eta gaztelaniaz aldatu gabe gure garaira heldu dena, baina hori gaztelaniaz. Euskaraz eta bertokoen artean, izen zeharkitua eta ezezaguna da. Gure hizkuntza ez denez inoiz administrazio hizkuntza izan herrien izenetan ezin izan da islatu hizkuntzaren eboluzioa, gaztelaniaz gertatu den bezala, eta Erdi Aroan Villa de Navi, Villamorosa eta Masurdones zirenak, egun Villanañe, Villambrosa eta Villamardones dira, erromantzearen eboluzioarekin batera joan direlako izenak, gure herri-izenetan gertatu denaren kontrakoa hain zuzen. Gertaera hau ez da gurea soilik, galego-portugesez ere antzekoa pasatzen baita, baina adibiderik argiena Lisboa dugu; gaztelaniaz Lisboa deitu izan dena ingelesez oraindik ere Lisbon dena.

Laburtzeko, Sopelana Erdi Aroko izena da, gaztelaniaz ongi mantentzen dena baina euskaraz, lege fonetikoak segituz, Sopela bihurtu zena. Izen horretatik sortu zen bertakoak izendatzeko era, jentilizioa deiturikoa: sopeloztar, dimoztar, leioaztar, lemoaztar, galdakoztar eta getxoztar bezalaxe, eta ez sopelanatar, batzuek oraintsu asmatu duten ustezko euskal izena, bestalde guztiz arbuigarria dena. Beraz, sopeloztarren herriz Sopela. m

ARTIKULU HAU DEIA EGIKARIAN ARGITARATU ZEN 1998KO URRIAN

“Egizu” proiektua

aurten ere martxan jarri dute euskalgintzan diharduten herriko taldeek



Egitasmo honek Getxon euskaraz gehiago berba egitea du helburu. Programak eskaintza nagusi bi egiten ditu. Batetik, *Berbalagun* izena duena dago. Berbalaguna-k, euskara ikasten ari direnak eta euskaldunak harremanetan ipintzen ditu bere adin, zaletasun eta hizkuntz ahalmenaren arabera. Adidibez, taldeak astean behin geratzen dira kirola egiteko, mendira joateko, paseatzeko, kafetxo bat hartzeko... Parte hartu nahi duenak, aldizkari honetan 31. orrialdean argitaratzen dugun iragarkian aurkituko ditu modua eta argibideak.

Bestetik, aipatu behar da, aurtengo programa zehaztu barik dagoen arren, Egizu-k euskarazko kultur eskaintza ere egiten duela: tailerrak, hitzal-diak, ipuin kontalariak. Dena euskaraz! m

Argibideetarako:
94 491 43 57 / 605 73 99 16 / egizu@hotmail.com
Karitatea 1, 1. sotoa 10. bulegoa

Aerobica eta literatura euskaraz

Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen eskutik

Ikasturte berriari hasiera eman dio euskara elkarteak eta aurten burutuko diren lehenengo ekintzak aurkeztu berri ditu. Batetik eta aurreko urteetan bezala, aerobic ikastaroa euskaraz eskainiko da. Ohi legez, Algortako San Nikolas ikastolan, astean hirutan (astelehen, martitzen eta egunetan), 20:30 eta 21:30 bitartean izango da, irakaslea: Amaia Bidarte. Hilabetean, 24 euro kostako da, euskara elkarteak bazkideei 18. Izena emateko deitu arratsaldean euskara elkartera: 94 491 43 57. Bestetik, aurten ere *Irakurzaleen txokoa* programari hasiera eman zaio. Lehenengo idazle gonbidatua Josu Landa izan da eta *Odolbildua* bere nobelari buruz mintzatu zen herriko literaturzaleekin. Programa honetan liburu baten irakurketa proposatzen da eta ondoren idazlea edo itzultzailea ekartzen da haren inguruan mintzatzeko. m

uk

etxean jaso
nahi baduzu
deitu!

94 491 1337

*goizez

UK Uribe Kostako Aldizkaria / Armezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31
bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

BILBOMICRO



“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoa: 4230213



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Boletusak

porru saltsan Idiazabaleko gaztaiarekin gratinatuak

Aurten ikaragarri aureratu da perretxikoen denboraldia eta irailaren hasieran asko ateratu dira. Horien artean, boletusa erruz ikusi da gure basoetan. Plater hau prestatzeko, lehenengo salta prestatuko dugu. Jarri oliba olio eta gurina sutan, eta gehitu porrua txiki-txiki zatitua. Eduki sutan 10 minutu. Gero bota koñak txorrotada bat, esnegain likidoa, gatza eta pipermina. Okela salda apur bat ere bota dakioke, eskura ez badaukagu, *starlux* zati txiki bat. Hau guztia loditu arte eduki su ahulean. Bestetik, boletusak plantxan egin edo zartaginean salteatu, gustura. Dena nahastu, Idiazabal gaztaia bota gainetik eta labean gratinatu. On egin! ^m

osagaiak

boletus perretxikoak • porruak • koñaka • esnegain likidoa • oliba olio gurina • gatza • pipermina • okela salda • Idiazabal gazta



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardo ekologikoa

Ardo hau egiteko ezin da antioxidanterik erabili, ezta anhidrido sulfurorik. Teknika fisiko batzuk ere bazterzen dira, esaterako, filtrazioa murrizten da. Jancis Robinson adituaren arabera, debeku hauetako batzuk ez dute oinarri zientifiko handirik. Adibidez, ardo ekologikoetan, azidifikaziorako, ez da azido tartariko erabiltzea onartzen. Honen orde zuku erabiltzen da, beti ere *bio* bada, baina ardoan azido tartarakikoa da nagusi eta ez zitrikoa.

Ardo ekologikoa antzinako teknikak erabiliz egiten da, aditibo eta antioxidanteak ezagutzen ez zirenean. Horregatik bere ezaugarri biologikoa ez da gauza berria. 70eko hamarkadatik aurrera, gero eta mahaigile gehiago metodo zaharretara itzultzen ari dira, bai arrazoiz ekologikoengatik edo komertzialengatik.

Ardo hauen kalitatea ez da bitarteko fisikoak erabiliz egiten direnena baino hobea. Batzuetan, oxidazio nazkagarria izaten dute, nahiz eta azken uztakoak izan. Izan ere, euren ezaugarri frutal gehienak galtzen dituzte oso antioxidante gutxi dute eta. ^m



El Puerto Zabala erretegia Adituak arrain errean

Hil honetako jatetxea, El Puerto Zabala, Algortako Portu Zaharreko klasiko bat da; 14 urte daramatzate janari gozoak eskaintzen eta azkeneko urteotan izen handia lortu dute getxoxtarren artean. Sukaldariak Celia Díaz eta Joseba Zabala dira (ama eta semea); biak eskarmentu handikoak eta maisuak itsaskia eta arraina plantxan prestatzen. “*Taberna zabaldu genuenean pintxoak ematen hasi ginen eta orduan hura zen gure espezialitatea. Gaur egun berri, bazkari afariak ematen ditugu eta jakina, arraina eta mariskoa dira gure*

eskaintzaren oinarria. Guvera datorenak horien bila dator”, azaldu zigun Josebak. Itsaskietan, otarrainak, lanpernak, buiak, nekorak, abakandoak, ganbak eta otarrainxkak prestatzen dituzte, eta arrainen artean, erreboiloa, lupina eta hegaluzea platerik eskatuena dira. “*Hala ere, plater izarra, arrakastatsuen, bisigua da*”, argitu zigun Josebak. ^m

EL PUERTO ZABALA / Aretxondo, 20
Algortako Portu Zaharra
Karta: 35-50 euro
Komenigarria da erreserba egitea
Erreserbak: 94 491 21 66



Argazkian, Celia Díaz eta Joseba Zabala

barrak



Argazkian, Bego eta Anton

Barrukoa taberna gutzien txokoa

Kofre baten modukoa da Barrukoa, txikia baina barruan altxor handiak gordetzen dituen. Ezaguna da ematen dituen ardoengatik eta hango tortilak eskualdeko onenetakoak dira. Barrukoa gainera pintxo motak egun batek bestera aldatzen dituzte. Gutizia hau gutzien egilea Begoña Urberuagazumaran da. Bera ibiltzen da sukalde lanetan eta bere senarrarekin batera, Anton García, baita barran ere. Jabugo eta Idiazabal gazta galaperren arrautzekin; foie, laranja zukua eta kipula saltsa tartaletetan; berenjena bastatua bakailaoarekin ali-olien; foie

piku berdeekin almibarrean; tomate bastatua jabugorekin eta Idiazabal gazta, jabugo, esnegaina eta foiez betetako piper gorriak... dira Begoñak prestatzen dituen mokautxoetako batzuk. Hala ere, pintxo izarra *Trainera* izenekoa da; piper berdea txatka, hegaluze eta kipulaz bete. “*Askotan Donostia aldera joaten naiz ideia berrien bila baina beste errezeta batzuk nire semeak, Sergiok, Interneten lortzen dizkit*”, azaldu zigun Begok.

Barrukoa taberna Telletxe 5, galeria
Telefona: 94 466 18 20



Janedan
urdaitegi

Adituak gara pernila, iberikoak eta delicatessen produktuetan

Bidebieta, 4 behea
Tel. 94 676 58 79
SOPELANA

Alangobarrí 10
Tel. 94 491 58 37
ALGORTA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

udondo
taberna
zatoz!

Lehendakari Agirre, 2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

AITOR ELIZEGI > sukaldaria

“Bezeroaren konfiantza lortzea oso gauza handia da”



Argazkian, Aitor Elizegi, *Gaminiz* bere jatetxearen aurrean. Alboko orrialdean, jatetxea.

Adituek pil-pilaren errege dela diote. 36 urte baino ez ditu eta Zamudioko parke teknologikoan dagoen Gaminiz jatetxearen buru eta jabe da. Gastronomiaz hitz egitean begiak piztu egiten zaizkio. Sukaldaritzaren naturala eta fusiozkoa aldarrikatzen du.

—Aitor, itauna halabeharrezkoa da: zein da pil-pil on bat egiteko sekretua?

—Makailoak naturala eta freskoa izan behar du. Orain makailo “injektatua” tonaka dago merkatuan. Uste dut Euskal Herrikan kanpo oso leku gutxitan jaten dela egiazko makailoa. Temperatura ere zaindu behar da. Makailoaren gelatinek 80 gradutan egiten dute lan eta horregatik ez da sekulan tenperatura altuagoetan lan egin behar. Bestetik, saltsa epelean loditu behar da eta jakina, oliba olio gordina erabili behar da. Nik 0,4°koa erabiltzen dut. Olio bigunak baina aldi berean oso zapoetsuak daude gaur egun. Graduazio altuagoak nire ustez garrantzikiak dira.

—Zelan definitu zenuke zure sukaldaritzaren?

—Batek txikitatik irakatsi dioten moduan jaten du eta, zorionez, Euskal Herrikan badaukagu gauzak ondo egiten saiatzen den jende asko, tradizio hori jasotzeko zorrea eduki dugu. Bestetik, sukaldaritzaren handiaren atzean beti daude kalitate handiko lehengaiak. Itsasoan gatxa da, gero eta lehengai gutxiago dagoelako. Lurrean berriz, lortu behar dugu label mailako produktuen unibertsalizazioa, ezin da gauza eskusiboa eta aberatsentzat baino izan. Sukaldari batek ondo prestatu behar du legatza saltsan, eta nekazari batek berdin; tomate bikainak egitea eskatu behar zaio. Lehengai eta sukaldaritzaren lotuta doaz. Horregatik nire

sukaldaritzaren azaltzeko, *naturala* adjektiboa baino ez zait bururatzeko.

—Sukaldaritzaren modak ere badaude, zer dago orain modan?

—Mundu mailan, argi dago, ekialdeko sukaldaritzaren Txina, Japonia... Oro har, Asiako sukaldaritzaren. Euskal Herrikan, gauza bitxia gertatzen ari da eta adituak txundituta daude. Euskal Herriko eta

“Euskal Herriko eta Mediterraneoko sukaldaritzaren arteko fusioa egiten ari da eta hortik munduko sukaldaritzarik onenetakoa aterako da”

Mediterraneoko sukaldaritzaren arteko fusioa egiten ari da eta, munduko sukaldaritzaren onenetakoa izango da hau, eta egia da. Euskal sukaldaritzaren berria sortu zenean Frantziari begira egin zen, normala, baina erratu ziren. Hurrengo pausua hau izan da, eta jendea “flipatzen” ari da.

—Eta ardoetan, zer joera da gaur egun nabarmendu daitekeena?

—Orain arte batez ere egur zapo handia duten ardoak estimatuena izan dira gurean. Gaur egun, berriz, modan daude mahats zapo handia daukatenak, ia mahats zukuak baino ez direnak, oso afurutatuak. Mutur batetik bestera pasatu gara. Niri erdiko puntua gutzatzen zait.



—Zelan joan behar jatetxe handi batera, zer jarrerarekin?

—Gosez! Jatetxe handi batera joatea niretzat jaia da, plana... Arzak batengana bazoaz berak 40 urtean ikasi duena jarriko dizu mahai gainean. Tamalez, badago jende asko hau estimatzen ez dakiena.

—Bizkaikoen aldean Gipuzkoako sukaldariak ezagunagoak dira...

—Argi dago euskal sukaldaritzaren berriaren lehenengo urratsak beraiek eman zituztela. Han, Frantziako eredu imitatuz, sukaldaria eta aldi berean jabearen figura azaldu zen lehen aldiz Euskal Herrikan. Eurak gu baino lehenago izan ziren jatetxeen jabe. Eta orduan, jakina, bat jabe bada, gehiago kezkatzen da, detaile guztiak zaindu nahi ditu. Eta hori guztia gero igarri egiten da. Hala ere, enpresario ona, sukaldari bikaina eta aldi berean atsegina izatea ia ezinezkoa da, hori Arzak edo Berasategi batek baino ez dute lortzen. Eta horrelako fenomenoak oso gutxi daude.

—Urriari gaude, zer jan behar dugu?

—Udazkena da, niretzat usainen sasoiak. Eta usaintzen dudana da nik jan eta egiten dudana: perretxikoak, aza, kalabaza, fruitu sikuak...

“Label kalitate mailako produktuen unibertsalizazioa lortu beha da”

—Zein da zure ustetan sukaldari baten lorpenik handiena?

—Norberaren bezeroa jatetxera etorri eta esatea: *“Aizu, Aitor jar ezazu nahi duzuna”*. Bezeroaren konfiantza lortzea oso gauza handia da.

—Amaitzeko mesede bat Aitor: neska bat seduzitu nahi dut eta etxera afaltzera etorriko zait iluntzean. Zer egin dezaket?

—Amantala bakarrik jantzita prestatu afaria (barre). Ipurdi polita badaukazu, seguru asko ez duzu ezta afaririk ere prestatu behar (barre gehiago).^m

Arasa
Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa
SARRIKOBASO, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
GETXO

GOIZEAN
Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak
Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13
GETXO T: 460 02 88
ALGORTA

GAVRKO
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a J e s s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA **HARTU TXANDA**

BEROGAILU ETA ITUR -
T: 430 53
HIRURAK
Sarrikobaso 15




● zure **dirulaguntza**
behar-beharrezkoa
dugu!!!

● **Boluntzarreta**

BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

● **UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako menu bat GARDOKI Jatetxean



Nor da?

- **Bilbon jaio zen 1965an**
- **Rol jokalaria amorratua**
- **“Mirindas asesinas” egin zuen**
- **Santiago Seguraren lagun handia da**

> Aurrekoaren erantzuna: Roberto Laiseka

> Irabazlea: * **Lourdes Artetxe**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean
bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

*Gardoki
Jatetxea*



Mendieta kalea 47
Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita



Bittor Egurrola

Ereagako Hondartza Txapelketak 1951. Nahiz eta horrela deituak izan, norgehiagokak ez ziren hondartzan bertan jokatzeko, baizik eta apur bat atzerago, barrakak jartzen ziren gunean hain zuzen ere. Argazia bertan hartu zen 1951n. Udaberrian izaten ziren txapelketa hauek, maiatzean eta ekainean. Finala Areetako Gobela futbol zelaian jokatzeko zen, garai hartan Getxo futbol taldeak zela hartan jokatu behar izaten zuten. Argazkian azaltzen diren futbolariak Algorta, Alango eta Hezetasun auzokoak dira.

Zutunik: ?, José Lejarraga “Petiso”, Fernando Bengoetxea, Eulogio Cristobal, Victor Gorroño, Ahedo, ?, Urbano Urizarri (GB), Jon Etxeandia / **Makurturik:** Javier Bañales, Edmundo Bidegorri (GB), Agustín Antiza (GB), Atanasio Agirre “Txikilin”, Juan Alcacena, Goio Pomposo, Pedro Maguregi

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

CALENDOS RIKI

UMEAK-GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543 - AREETA



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Opor luzeak behar dituzu laguntxo; gizakia zara eta ez makina. Entzun nahi baduzu, horra hor beste aholku bat: bikote lagunarekin irekiago egon behar duzu. Entzuteak ez dio inori kalterik egiten.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Oraindik kontu berberari bueltak eta bueltak ematen... hasi zure bizitzako atal berri bat! Bazuetan guk geuk egiten ditugu gauzak arazo eta denboraren joanak erakusten digu ez zela hainbestera.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Adiskideekin duzun harremana zaindu beharko zenuke. Azken finean, benetako lagunak egoera onetan eta txarretan laguntzen zaituzte beti. Berandu baino lehen, noizbait eskertu beharko zenieke.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Lankide batekin eztabaidaren bat izango duzun, tentsio handia jasango duzu hil honetan. Horregatik saiatu zaitzez aisi denboran benetan gustatzen zaizkizun gauzak egiten.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Kontuz zer jaten duzun. Bestetik, nagiak atera eta naturan murgildu zaitetz; ematen duena baino errazago da. Egituz jaramon, hobeto sentituko zara, zu zeu eta, hortzak, zure ingurukoak.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Indar handiz hasi duzu ikasturte berria. Oso momentu ona da zure bizitza begi berriekin ikusteko eta zeure buruari erronka berriak jartzeko. Maitasun kontuetan ere, bizipen berriak...

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Lan kontuetan maitasunekoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrerara hau zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dizulako. Baina kontuz, zure kontra ere itzul daiteke.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Lagun bati huts egin eta berehala damutuko zara. Persona hori mindu ondoren, jokabideaz aldatzeko komenentziak ohartuko zara. Onerako bada, sekula ez da berandu izaten.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Urduri eta narritagarri sentituko zara eta lo egitea kostatuko zaizu. Oso umore txarrekin zaude; zergatik izango ote da? Hartu denbora; zure buruarekin sarriagotan egon beharko zenuke.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Beti besteen eskakizunak asetzen, noiz hartuko duzu zeuretzat denbora? Beti egin nahi izan dituzun gauzak egin, aspaldian ikusi ez dituzun lagunak bisitatu edo deitu, kapritxoren bat erosi...

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beldurra, ez duzu birritan pentsatu gabeko pausurik eman. Aldatu! Bizitzari aurre egin behar diozu, honek zu garaitu baino lehen.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Bada zure gorputza zaintzen hasteko garaia. Behin baino gehiagotan saiatu zara, baina oraingoak behin betikoa izan behar du. Horretarako ezinbestekoa da zure buruarengan konfiantza izatea.

Lur planeta. Lurreratzien atzetik.



Hortzak estutzen ditut. Nire tripetako bihotzerre hilgarria ahaztu nahi dut. Eta lurraren gra bitateak onartzen dituen arauei erronka eginez lasterka egiten saiatzen naiz. Nire planetara lehenbailehen joan behar dut. Azkenean nire untzia konpontzeko beharrezkoak nituen piezak lortu ditut. Arren! Papera egon dadila komunean! Zuhaiarka horien atzean dago lurra hartzeko nire lekua. Plusmarkista baten inbidia litzatekeen abia duran atzean uzten ari naiz ingurukoa eta Lur planetan.

Bitakora koadernoak: Lurra polo bik estutzen duten planeta da, eta ur gaziak betetzen du bere parterik handiena. Guiskia biguntzeko egokia ez denez, gizateriak guiskia urtsuagotu ahal izateko taberna izeneko tenploak eraikitzen ditu. Gizakiak aberats eta pobreen artean banatzen dira. Azken hauek dira egunero hirutan jaten gorriak ikusten dituztenak eta disimulatzeko txistu doministiku egiten dute eta handikien itxurak egiteko edaten dutenean hatz txikia altxatzen dute. Jainko!



Irailaren 11n Jaungoikoa gurtzen duten guztiek, antza McDonalds bat izandako zulo bat miresten dute, euren herriko kulturaren ikur bakarra. Eta karitate lanak egiten egiten dituzte. Esaterako gaitajoleei lana emateko Jaungoikoa eta Deabrua, lehenengoak egunero bizarra egiten due lako bereiz daitezke. Gure gizarte biak osantzekoak dira, beno Lur planetan gaueko ordu txikiak taxi bat topatzea gatxagoa delako ez balitz. Hara! Be...

Hau etsipena! Nire untzia aurkitu badute, nireak egin du! Extralurtar bat naizela jakingo dute! Eta Lurra inbaditzeko nire etorkizunerako asmoa hutsean geratuko da! Uztailaren lekuan oso azkarrak izan behar duten inteligentzia zerbitzuen txartel bat aurkitu dut: Garabi Muzizidatza. Iskanbila bat entzuten dut. Antza, jende mordo hase erue honantza dator. Ezin dut harrapa nazaten utzi. Osain txar batek giroa gaiztotzen du eta jasanezina da. Eskuekin nire...



JOSU URRUTIA > futbolaria

“Nire ametsa alabak hazten ikustea da”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...
Sinpletasuna.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?
Nik uste dut pazientzia falta dela, egonezina.

Maiz errepikatzen zaizun ametsa...
Lehen, txikitan, Athleticera heltzea. Orain, ez daukat amets konkretu bat, baina tira... Batez ere, alabak hazten ikustea.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat... Lekeitioko udak.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?
Bi dira: aita eta ama.

Zer da pertsona batengan gehien baloratzen duzuna?
Zintzotasuna.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?
Jarraitzaileek normalean gauza onak esaten dituzte.
Bat aipatzekotan, betiko jarraitu beharko nukeela jokatzeko.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?
Ezin bat aipatu. Normalean, txarrak izan arren gizabidez eginda badaude, aztertu egiten ditut. Bestela, ahazten ahalegintzen naiz.

Zein da zure libururik gogokoena?
Asko gustatu zitzaidan José Luis Sampedroren *La sonrisa etrusca*.

Abestirik gustukoena?
Asko daude. Bat esatearren, *With or without you*, U2rena.

Eta film bat? *La vida es bella*.

Zein lelorekin egiten duzu bat?
Nik uste, ekinaren ekinez lortzen direla gauzak.

Zertan edo norengan sinesten duzu? Nire sendiarengan.

Zerbaitekin damutzen zara? Izatekotan, noizbait nire arazoetan oso sartuta egon izana, etxekoei jaramon handirik egin barik.

Zerk ematen dizu beldurra? Osasunik ez izateak.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?
Hemendik aurrera, emaztearekin eta alabekin egoteak. Bestetik, oso harro nago Athleticen hainbeste urtean egon izanagatik. m

JOSU URRUTIA- Bederatzi urterekin hasi zen Athleticekin, eta bertan segitzen du 34 urte bete dituen honetan. 1988ko martxoaren 20an egin zuen lehen taldearekin debuta, San Mamesen, Xixongo Sportingen aurka eta Howard Kendall entrenatzaile zelarik. Ondo gogoratzen duenez, bana amaitu zen norgehiagoka hura. Zaleen kutuna izan da beti, eta baita ego-kitu zaizkion entrenatzaile gehienena ere. Azken boladan gazteek titulartasuna eskuratzea zaila ipini dioten arren, Bilbon jaiotako erdilariak badaki zelaira ateratzen den bakoitzean barneak hustutzen. Gaur egun, Leioan bizi da.